

txanpa

2026

LITERARIOA 19



PASAIA - LEZO
LIZEOA

IKASTURTE BERRIRAKO PREST!



Etzetik edo
liburu-dendan eskuratu
ikasturte berrirako
behar duzun guztia.

ekar

www.ekar.eus

LITERARIOA 19. zbkia.

AURKIBIDEA

- | | | |
|-----|------------------------------------|-------------------------------------|
| 4. | Unax Perez Martinez | INAUTERI ZAHARRA |
| 5. | Bidart Lekuona Martinez | KIN-KIN-KIN |
| 6. | Adei Irazustabarrena Bravo | BERTSOAK |
| 7. | Itzal Alkorta Ruiz de Aretxabaleta | ERLOJU MAGIKOA |
| 8. | Noah Azpiazu Infante | AHOAREN KOLOREAK |
| 9. | Ani De Los Mozos Almandoz | JAZARPENA ALA ENPATIA? |
| 10. | Ekhi Aizkorreta Muguruza | ODOL TANTAZ IDATZITAKO EGUNEROKOA |
| 12. | Unax Zalla Intxaurrendieta | LIBURU BAT MUNDUAREN BIRAN |
| 13. | Joanes Maquibar Aldanondo | NAHI DUGUNA GARA |
| 14. | Uxue Ben Chaib Rubio | MUNDUA SALBATZEA ERABAKI NUEN EGUNA |
| 16. | June Rolin Vazquez | MUSIKA KAXA |
| 17. | Eider Otxotorena Ventoso | ZERGATIK? |
| 20. | Lur Viana Ortega | ZORIONTASUNA OINETAKORIK GABE |
| 22. | Nikole Alday Murua | ESKERRIK ASKO, ZURI |
| 23. | Noara García Mayoral | ESKERRIK ASKO, AMONA |
| 24. | Irati Gonzalez Marañon | BIZIRIK |
| 28. | Udane Martin Resano | BIHOTZA |
| 29. | Uxia Turco Intxausti | UBELDURAK MARRAZTEN ZITUEN MUTILA |
| 33. | Nora Arzallus Faya | MINAREN AINTZIRA |
| 34. | Amayur Viana Rey | GIZARTEA GURI DEIKA ARI DA |
| 38. | Yue Riveira Mitxelena | AZKEN TAUPADA |
| 39. | Iraia Salbide Ferreira | OROITZAPENAK |
| 44. | Amaiur Amiano Monreal | NIK DUDAN ONENA |



Txanpa Literarioaren 19. Adizioa duzue esku artean.

Poz handiz aurkezten dizuegu aldizkari hau, hitzez, irudimenez eta sormenez beteriko orrialdeak biltzen dituena. Barruan aurkituko dituzue Trastamintxo literatur lehiaketako, Lezoko Orribakar lehiaketako eta Urruzuno literatur lehiaketa-ko irabazleek sortutako ipuin eta olerkiak; bihotzetik sortutako lanak, ahots propioz idatziak eta mundu txiki zein handiak irudikatzen direnak.

Lehenik eta behin, zorionik beroenak eman nahi dizkiegu saridun guztiei: zuen talentua, ahalegina eta ausardia benetan miresteakoak dira. Baina, batez ere, eskerrik asko parte-hartzaile guztiei. Zuen ekarpenik gabe ez litzateke posible izango halako altxorra osatzea. Denon artean, komunitate sortzaile eta bizia eraikitzen duzue, hitzak zubi bihurtuz.

Aldizkari hau gonbidapen bat da: lasai eseri, orriak pasa eta istorioetan murgiltzeko; irribarre egiteko, pentsatzeko eta amesteko. Irakurtzea bidaia bat da, eta hemen duzue abiapuntu eder bat.

Beraz, gozatu, partekatu eta jarraitu irakurtzen.

Sormena ez dadila inoiz itzali!

INAUTERI ZAHARRA

Duela urte pila bat neskato bat zegoen. Neskato hurak Maialen zuen izena. Maialen oso urduri zegoen laster inauteriak izango zirelako. Baserri batean bizi ziren aita, ama, amona, aitona eta Maialen. Baserria apaintzea pentsatu zuten.

Hurrengo egunean, ikastolara joateko esnatu zuen amak. Motxila hartu eta ikastolara joan zen. Trastamintxok Maialenen estutxean mukiak utzi zituen. Lezoko plazan dantzatu eta gurasoekin etxera bueltatu zen. Aitonarekin basora joan zen.

Trastamintxo isil-isilik basora joan zen. Trapujaleren etxera joan zen eta bidean Argitxorekin topo egin zuen.

- Kaixo, Trastamintxo! Nora zoaz? -galdetu zion Argitxok.
- Trapujaleren etxera, eta zu? -erantzun zuen Trastamintxok.
- Ni Basajaunen etxera noa. Agur!

Maialen esnatu, motxila hartu eta ikastolara joateko prestatu zen. Eta aitonak esan zion:

- Aizu, Maialen. Nora zoaz?
- Ikastolara!
- Baina gaur ez dago ikastolarik!
- A! Ahaztuta neukan!

Maialen berriro ere aitonarekin basora joan zen. Basoan aitonak Maialeni sekretu bat esan zion: "Basajaun, Trapujale, Argitxo eta Trastamintxo gure familiakoak dira".




**UNAX
PEREZ
MARTINEZ**


*LEHEN HEZKUNTZA,
3. MAILA*

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

KIN-KIN-KIN



Ni behin joan nintzen plazara
lagunekin
eta topatu nintzen
euri jasarekin.
Etxera joan nintzen
aterki handiarekin.
Ze pena lagunak esan zidatenean
nengoela aterki puskatuarekin!





**BIDART
LEKUONA
MARTINEZ**

LEHEN HEZKUNTZA,
3. MAILA

LEZOKO ORRIBAKAR
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA

BERTSOAK





Eskerrik asko denoi
etortzeagatik,
hurrengo urtean ere
pasa, ba, hemendik
eta itxarongo zaituztet
Tiñelu aldetik.

**ADEI IRAZUSTABA-
RRENA
BRAVO**

LEHEN HEZKUNTZA,
3. MAILA

LEZOKO ORRIBAKAR
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA



ERLOJU MAGIKOA

Baziren behin lau lagun Irati, Miren, Sara eta Intza deitzen zirenak. Iratik 10 urte zituen, oso azkarra zen eta marraztea gustatzen zitzaion. Mirenek 9 urte zituen eta irudimen handia zuen. Sarak 10 urte zituen eta piraguan ibiltzea gustatzen zitzaion. Intzak 10 urte zituen eta sandia jatea gustatzen zitzaion.

Egun batean, izozki bat jatera joan ziren. Izozkia erosi ondoren banku batean jatera eseri ziren:

-Ze goxoa! -esan zuen Intzak izozkia miatzkatuz.

Bat-batean Iratik gizon bat seinalatu eta hau esan zuen:

-Ze gizon arraroa!

Orduan gizonak entzun eta beraiengana hurbildu zen. Gizonak gauza bitxi bat esan zien:

-Erloju hau oso berezia da eta botere ikaragarria du, zainduko didazue?

Denak elkarri begiratu ziren baina erantzun aurretik desagertu zen.

Sarak gauza bat entzun zuen eta gizonaren ahotsa iruditu zitzaion, Mirenek horretaz pentsatzen aritu zen eta esan zuen:

-Imajinatzen duzue erloju barrura sartu dela?

Denek ezezkoa erantzun zioten, baina horrelako zerbait gertatu zen.

Orduan, lagunak elizako erlojura joan eta ordua begiratu zuten baina ordua ondo zegoen. Erloju magikoak, elizako erlojua ikustean erloju zahar batean bihurtu zuen eta orduan ulertu zuten, ikusten zuen guztia zaharragoa bihurtzen zuela.

Denak beldurtu ziren, agian beraiei ere gertatuko zitzaielako. Hainbeste beldurtu ziren, non Sarari erlojua lurrera erori zitzaion eta puskatu egin zen. Denak asko beldurtu ziren, beraien ustez zerbait txarra gertatuko zitzaielako, baina horren orde, dena bere onera itzuli zen.



**ITZAL ALKORTA
RUIZ DE
ARETXABAETA**

LEHEN HEZKUNTZA,
4. MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

AHOAREN KOLOREAK

Bazen behin koloretako aho bat. Arroxa, morea, beltza eta kolore gehiago zituen.

Egun batean gosaltzen zegoen eta bat-batean ahoa beltza jarri zitzaion. Ez zuen ulertzen zergatik.

Orduan jantzi egin zen eta medikura joan zen eta medikuak ez zekien zer gertatzen zitzaion. Orduan botika berezi bat eman zion.

Aste bat pasa zen eta ez zion ezer egin botikak. Orduan berriro medikura joan zen eta medikuak esan zion:

-Oraindik botikak edan behar dituzu!

Eta ahoak esan zuen:

-Ahhhh...ez nekien botika osoa edan behar nuela, ez zenidan esan noiz arte.

Ahoa etxera joan zen eta telebista ikusten ari zenean, bat-batean, kolorea aldatu egin zitzaion eta oso pozik jarri zen eta koloreak ondo aldatzen zitzaizkion.

Hala bazan edo ez bazan san dadila kalabazan eta atera dadila ahoen plazan.



**NOAH
AZPIAZU
INFANTE**

**LEHEN HEZKUNTZA,
4. MAILA**

**LEZOKO ORRIBAKAR
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

JAZARPENA ALA ENPATIA?

Sorginak existitzen al dira? Eta lamiak? Eta basoko animalia arraroak? Baso misteriotsu batean soinu arraroak entzuten dira. Jonek ausart itsurak egiten ditu, eta baso horretara joatea erabakitzen du.

Jon ez da edonolako mutila, jazarpena egiten diote bere itxuragatik. Baina ez dute ideiarik ere bera barrutik nolakoa den. Jon pertsona alaia da, ona, arduratsua. Gainera berak beti positiboan pentsatzen du, eta besteek inbidia diotela pentsatzen du, horregatik ez zaio asko inporta berari jazarpena egitea, nahiz eta gaizki sentitzen den.

Jon eta bere gelakideak udako kanpaldira joan ziren, basoaren ondoan zegoen etxola batera. Lotara joan baino lehen basoko piztiaren kondaira kontatu zuten, esku bakarreko piztiarena. Irakasleak etxetxoaren marrazki bat eman zion bakoitzari. Jonek marrazkia poltsikoan sartu zuen, eta oheratu egin zen.

Gaua zen, basoa ixilik zegoen, ez zegoen haizerik, eta animaliak lotan zeuden. Kanpamentuan ere denak lo zeuden, Jon izan ezik. Berak ezin zuen lorik hartu dena ixiltasunean egotea ez zitzaiolako gustatzen. Gutxienez haize pixka bat egongo balitz, baina ez, denak lo zeuden. Momentu batean soinu arraro bat entzun zuen, basotik zetorren oihu moduko bat zen. Jon ohetik altxatu zen, eta bi aldiz pentsatu gabe etxolatik atera zen.

Basoa hasten zen lekura joan zen. Jon urduri zegoen, eta etxolara itzultzeko zorian zegoenean bi argi ikusi zituen. Hara urbiltzea pentsatu zuen, eta zuhaitzen tarteetatik desagertu egin zen. Oihu hori geroz eta ozenagoentzuten zen. Bat-batean etxetxo bat ikusi zuen eta ixildu egin zen. Jonek zuen marrazkia hartu eta ongi begiratu zuen esku bakarreko piztiaren etxetxoa zen. Atea irekita zegoela ikusi zuen, eta arnasa hartu eta barrura sartu zen. Jonek ezin zuen sinetsi ikusten ari zena esku bakarreko piztia zen:

-Baina ez al zara nirekin izutzen?- esan zuen piztiak.

-Ez- erantzun zuen Jonek- zu ni bezalakoa zara, zuk esku bat falta duzu, eta nik hanka bat.

Bakoitzak bere burua aurkeztu ondoren, Joni ideia bat bururatu zitzaion. Jonek piztiari esan zion jazarpenari aurre egin behar zitzaiola, eta ez zela ixilik gelditu behar. Denbora luze hizketan aritu ondoren, Jonek eskaini zion berarekin kanpamendura joateko. Piztiak baietz esan zuen, eta elkarrekin itzuli ziren kanpamendura.

Irakasleari ondo iruditu zitzaion beste ikasle bat gelan egotea, baina mutiko horiek jazarpena egiten jarraitzen zuten. Baina bakarrari egin beharrean, biei egiten zieten ez ziren bakarrik sentitzen.

ETA ZU, ZE TALDETAN ZAUDE? JAZARPENA ALA ENPATIA?



**ANI DE LOS
MOZOS
ALMANDOZ**

**LEHEN HEZKUNTZA,
5. MAILA**

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

ODOL TANTAZ IDATZITAKO EGUNEROKOA

Wafa da nire izena, 11 urte dituen neska bat naiz.

Gazan bizi naiz, itsaso inguruan. Zortea dugu oraindik etxea dugulako, nire lagun batzuk ez bezala: Rawan edo Rubab adibidez. Gaur sekulako bazkaria dugu!: Arroza eta oilaskoa, azkenean bi plater!

Bazkaldu ondoren bonba bat entzun dugu, nire lagun Aaliyahren etxean! Korrika joan naiz, baina ez zegoen inor bizirik. Halaren kanpindendara joan naiz abisatzera Aaliyah hil dutela. Han geratu naiz jolasten; Hala eta biok kamioiaren gurpilearekin jolastu gara.

Gaur eskolara joan naiz eta israeldar poliziek listua bota didate kontrolean. Eskolan matematikak ikasi ditugu; oso txarra naiz eta gainera biderketak egin behar izan ditugu, gorroto ditut.

Etxera itzultzean harresiaren ondotik pasa naiz, eta zulo bat zuen!

Gerturatu egin naiz, orduan konturatu naiz israeldar militarrek gertutik zaintzen zutela; ez naiz gerturatuko, bestela tiro egingo didate.

Ezin dut sinetsi, a ze urtebetetzeko bazkaria! Pasteltxo bat dugu! Gaur nire urteak dira, 12 urte bete ditut. Lagunak etxera etorri dira, festa bat egin dugu eta. Pastelean kandelatxo bat jarri eta putz egitean desio hau eskatu dut: Genozidioa bukatzea!

Nire gurasoek diote urtebetetzean desio bat eskatu ezkeru bete egiten dela, eta nik beraiegan sinesten dut; egunen batean beteko da.



**EKHI
AIZKORRETA
MUGURUZA**

**LEHEN HEZKUNTZA,
6. MAILA**

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

Ondoren liburu bat oparitu didate: Printze Txikia. Diotenez, amaren osaba batek Europan topatu zuela eta arabierara pasa ondoren, amari oparitu zion. Zoritxarrez, gero hil egin zuten.

Ez dut ulertzen: zergatik hiltzen dituzte pertsona errugabeak errurik gabe?

Atzoko galdera gaur eskolan galdetu dut eta Samara irakasleak hauxe erantzun dit:

- Beren helburua gu akabatzea da, ondoren opor leku bihurtzeko.
- Ez da bidezkoa! -ohiukatu du Rawanek.

Eta hau erantzun dio Samara irakasleak:

- Badakit, baina ez dute bihotzik. Bueno, Netanyahuk eta militar gehienek ez dute bihotzik, ze israeldar guztiak ez dira gaiztoak.
- Baina kontraerasoa egin behar dugu! -jarraitu du Rawanek.
- Ez, jada Jamasekoak saiatu dira eta ezin izan dute. Baina hori ez da arrazoa; arrazoa hauxe da: gu ez gara beraiek bezalakoak, ez dugu gerra armaturik nahi!

Hori esan dio Samara irakasleak. Inork ez du ezer gehitu nahi izan eta klasearekin jarraitu dugu.

18 URTE BERANDUAGO

Jada 30 urte ditut eta bakarrik bizi naiz. Eskolatik itzuli nintzen egun batean etxea suntsituta topatu nuen; 15 urte nituen orduan. Etxearen kondarretan Printze Txikia liburua topatu nuen.

20 urte bete arte Halaren gurasoek zaindu ninduten. Orain, kanpindenda batean bizi naiz eta 12 urte nituela eskatu nuen desioa noiz beteko zain nago.

AMAIERA

NAHI DUGUNA GARA

Kaixo, ni Jon naiz, eta ez, ez naiz mutila. Tira, ez naiz mutila sentitzen. Aitak esaten dit, ez didala nesken arropa erosiko baina nik, galdera hau dut beti buruan:

Zer da nesken arropa?

Nire lehengusina Maren, ez-bitarra da. Nire osaba-izebek esaten diote hori ez dela existitzen, baina guk badakigu baietz bera ez-bitarra delako, eta gabonetan, mutilek erabiltzen dituzten arropak eskatu ditu aurten ere.

Nire gelan, Manex izeneko mutil bat dago, bera librea da. Nahi duena janzen du eta besteek esaten diotena berdin zaio. Amari oso ongi iruditzen zaio, baina aitak ez du oso ongi ulertzen. Ziur Manexen azalpenekin poliki-poliki ulertuko duela. Manexi dantza egitea gustatzen zaio, eta horregatik lehen burla egiten zioten. Ile luzea du, eta mozteko esaten dioten arren, ez du mozteko asmorik.

Manexen lagunik onena, Mikel da, eta jaiotzean mutil bezala izendatu zuten, baina sei urte zituela konturatu zen “okerreko” gorputzean jaio zela. Egia esan, ez dago okerreko gorputzik, okerreko begiradak baizik. Bere leloa “ze neska eta ze mutil, nahi duguna bagara” da, berarentzat ez dago mugarik. Nahi duena janzen du eta gurasoei ongi iruditzen zaie.

Julen mutil oso jatorra da eta mutilak gustuko ditu. Niretzat ez da ezer txarra, beste aldera, ona da. Nahi dugunarekin maitemindu gaitzke, ezta? Hori da nik pentsatzen dudana, eta guztiek pentsatu beharko genukeena.

Mara oso lagun ona da. Zarena zarela onartuko zaitu, ez dizkizu inoiz hegoak moztuko, eta edozein ideia zororekin bazoaz onartu egingo du.

Lili eta Haizea banaezinak dira. Denak garen bezalakoak onartzen gaituzte eta ez, ez dute zutaz barre egingo. Zurekin egingo dute barre.

Horrela egun oso bat jarraitu dezaket, baina gurasoei aurre egin genien eguna kontatuko dizuet:

Guraso guztiei plazara joateko eskatu genien eta ilera batean jarri ginen. Ni ilararen atzean ezkutatu nintzen, Manex aurreratu egin zen eta bere ilearekin jotzen hasi zen. Gero Maren aurreratu zen “ez-bitarrak existitzen gara” jartzen zuen letrero batekin.

Orduan lagunak kendu egin ziren eta ni agertu nintzen gona motz bat nuela soinean, takoi altuak nituen, belarritako handi batzuk eta Manexek utzi zidan ileorde hori batekin. Behin eta berriro hau errepikatzen nuen:

- Nahi duguna gara, nahi duguna gara!

Ikusi beharko zenukete beraien harridura aurpegia.

Beno jarrai nezakela esan dut baina ez. Afaltzera joan behar dut.

Gogoan izan; nahi duzuen zarete.



**JOANES
MAQUIBAR
ALDANONDO**

LEHEN HEZKUNTZA,
6. MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO AIPAMEN
BEREZIA**

LIBURU BAT MUNDUAREN BIRAN

Gurasoak begi bistaz galdu arte Antonek ez zion begiratzeari utzi. Ez zuen inoiz pentsatuko 7 urterekin, berriro ikusteko esperantzaz, gurasoak agurto beharko zituenik.

Gerratetik ihesi, kamioi bateko zaku batean sartuta etorkizun hobe baten bila bidali zuten Frantziara. Karlsruhe hainbeste gogoratzen zioten kaleetan zehar oinez egunak igaro zituen bere familiaren oroitzapen bakarrekin, amak gauetan irakurtzen zion liburua, bularraren aurka estu-estu kontzen zuen altxorra.

Ihesean zebilen bitartean familiak emandako erlikia hurak indarrak emanaz, Lapurdi izeneko probintzi txiki batera iritsi zen. Baionan egun asko igaro zituen gauero liburuko ipuinak irakurriz, behin eta berriro amaren usain goxoa gogoratuz. Antoni tiroak entzuten zituen aldiro bere gurasoen ohean ezkututzen zen garaia ekarri zion burura. Oroitzapen haiek aurrera jarraitzen lagundu zioten gurasoekin elkartzeko esperantzaz Pasaia izeneko zonalde batera iritsiz.

Arrantza ontzi bateko sareen artean ezkutatuta egunak, asteak edo hilabeteak, kontua galdua zuen, egon zen Atlantikoa zeharkatzen bere gurasoen oroitzapen bakarrekin, bere liburu kuttuna. Bere tamaina txikiaz baliatuz, elikatzeko janariaren bila ateratzen ez zuten harrapatzen, ikusezin bihurtuz Ternuara iritsi arte bere liburuko 5. ipuineko abenturazaleak bezala.

Botata aurkitutako larru azal batzuez baliatuz hotzari aurre egin zioen. Nahiz eta ez zen askorik, hipotermia bat baina hobea zen, huraxe gertatu baitzitzaion ipuinetako ehiztariari.

Helmuga gertu zegoen. Gurasoekin hitzartutako lekura iristeko gertu zegoela kontuan hartuta, Antonek bere bizitzako esfortzurik handienetakoa egin zuen tren geltokira iristeko, denboraren nekeak bere lana egiten baitzuen.

Ezezagun baten maletan ezkutaturik Ottawara iristea lortu zuen. A ze zoriona bere helmugara iristeagatik! Gurasoek bertako liburutegi zaharrenean itxarongo ziotela gogoratuz, Rosemount Liburutegirantz abiatu zen. Ahots ezagun baten hitzak entzutean ezin izan zien malkoei eutsi, ahots eta usain hark etxean zegoela sentiaraziz. Familiaren besoetan ohartu zen bularrean zeraman bidelagunaz, bere altxor preziatuaz. Anai txikiarengana makurtuz liburua eman zion hitz hauek esanez:

-Batzuetan nahikoa da liburu bat bakarrik ez sentitzeko.

-Harrez geroztik hitzez betetako altxor hura familiako haurren bidelagun bihurtu zen belaunaldiz belaunaldi.



UNAX ZALLA INTXAURRAN- DIETA

LEHEN HEZKUNTZA,
6. MAILA

LEZOKO ORRIBAKAR
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA

MUNDUA SALBATZEA ERABAKI NUEN EGUNA

Mundua salbatzea erabaki nuen eguna astelehena izan zen. Bai, astelehena. Ostiral bat aukeratu nezakeen, edo larunbat arratsalde lasai bat... baina ez. Nire buruak erabaki zuen superheroi bidaiak hasteko momenturik onena asteko egunik txarrena zela: presaka, logorea eta tostada lurrean, noski, alde txarra behera.

Tutorea irribarre “arriskutsu” horrekin etorri zenean hasi zen dena. Badakit irribarre hori zer den: edo azterketa edo “diktaketa berezi” bat...

- Gaur, mundua hobetzeko idatziko dugu - esan zuen.

Argi ikusi nuen: ondo geratu nahi banuen, adimentsua zurudien zerbait egin beharko nuen. Baina nire ikaskideak dagoeneko poeta hutsak ziren: zuhaitz gehiago, plastiko gutxiago... eta ni pentsatzen: “Zergatik ez ditugu lehenengo, ikastolako arazoak konpontzen?”

Eta orduan bururatu zitzaidan ideia handia: Zergatik idatzi mundua nola salbatu, benetan salbatzen saiatu naitekeenean? Ez dut asko galtzeko, gehienez, lotsa pixka bat.

Lehen misioa: 1.D eta 1.C-ren arteko gerra saihetsi, bai, baloi batengatik.

Asteak zeramaten borroka epiko batean. Nire bizitza arriskuan jarri nuen erdian jartzean, eta ohikatu nlen:

- Lasai, mesedez! Ez zarete Messi, ezta horrelakorik! - esan nien.

Arraro begiratu zidaten, baina oihukatzeari utzi zioten. Minutu batez. Gero, baloi bat aurpegira bota zidaten. Baina denek barre egin zuten. Eta hori da inporta duena, ezta?

Bigarren misioa: institutuko gosetearen aurkako borroka.

Bai, jangelara joan nintzen gero, eta beste tragedia bat zegoen nire zain: postreak bukatu ziren. Jendea tsunami baten moduan portatzen ari zen. Nire poltsikotik gailetak atera nituen. Bai, bigunak



UXUE
BEN CHAIB
RUBIO

DBH, 1. MAILA

TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA

eta bai, tristeak, eta banatu nituen. Bale, zer nahiago duzu nire ikaskideak hondamendi natural baten moduan jokatzeari? Ba, nik ez...

- Onak daude? - galdetu zidaten.

- Zure gosearen arabera - erantzun nien.

Baina hartu zituzten. Postrerik ez dagoenean, karbohidrato merkeena ere altxorra da.

Hirugarren misioa (edo hori uste dut): planetaren salbazioa... edo gutxienez, Matematikako klasearena, ia berdina.

Denek batera hitz egiten zuten. Eta iraskasleak "isilik!" baina ezer ez. Kaosa. Desesperazioa...

Eskua altxatu eta esan nuen:

- Isilduko bagina hamar segundoz, lehenago bukatuko genuke. Eta gutxiago sufrituko genuke denok, ezta?

Eta miraria gertatu zen: isiltasuna. Isiltasun BENETAKOA. Hamabi segundo iraun zuen. Baina nire klasean, hamabi segundo = mundu errealeko hogeita hamar urteko bakea.

Ondorioa

Egunaren amaieran, tutoreak eskatu zigun idatzitakoa irakurtzeko. Denek, planetari, ozeanoei eta naturari buruzko gauzak idatzi zituzten. Nire txanda iritsi zen eta esan nuen:

- Gaur mundua salbatzen saiatu naiz: futbol gatazka bat gelditu dut, janaria banatu dut eta hamabi sugundoko isiltasuna lortu dut Matematikako klasean. Ez da perfektua, baina astelehen baterako, ez dago gaizki.

Guztiek barre egin zuten. Tutoreak ere bai, nahiz eta agian, berak ez zuen onartu nahi. Eta orduan esan zuen:

- Mundua salbatzen gauza txikietatik hasten da.

Eta nik pentsatu nuen: Primeran, gauza handiak ez zaizkit motxilan sartzen.

Agian ez nuen planeta salbatu, baina astelehen hori pixka bat hobea izan zen. Eta, egia esan, onartuko dut, superheroi txiki bat sentitu nintzen. Baina hurrengoan, ez dadila astelehena izan, mesedez.

MUSIKA KAXA

Aspaldi-aspaldian, Bazen behin, dantzari bat. Musika kaxa baten barruan zegoen dantzari bat.

Esaten zuten bere edertasunak liluraturik uzten zuela, txori batek bezain fin dantzatzen baitzuen.

Dantzaria soineko arrox pinpirin batekin janzten zen, eta bere ile marroia moño polit batean jasotzen zuen. Azal zuriko neska zen, zisne baten antzekoa.

Baina dantzaria zerbaitek kezkatzen zuen, eta ez zen gutxi. Kaxa baten barruan bizi zenez, ez zen beti argia, musika eta dantza. Kaxa isterakoan, dena iluna bihurtzen zen, tristea, dantza eta musika faltan botatzen zituen.

Aldiz, kaxa irekitzerakoan, eta argia sartzerakoan, musika entzuten zen, eta dantzatzeko gogoia sartzen zitzaion. Nahiz eta bi begi erraldoik begiratu, berak dantzatzen jarraitzen zuen, pozik, alai.

Melodiarekin bat zetozen pausoak egiten zituen. Baina sentsazio hura ez zen betirako. Bat-batean, kaxa isten zen.

Tristura hura, bakardade hura, berriro agertzen ziren. Baina berari hori berdin zitzaion, bazekielako bere kaxa berriro irekiko zela.

Bizitzan triste bazaude, jarri ezazu musika, eta dantzatu; bizitza alai eta pozik bizitzeko da, ez triste eta bakarrik egoteko.



**JUNE ROLIN
VAZQUEZ**

DBH, 1. MAILA

**LEZOKO ORRIBAKAR
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

ZERGATIK?

2023 otsailak 13 astelehena

Gaur egun zaila izan dut, bonba eta militar artean; beno, egun zailak izaten ari dira nire familia guztiarentzat. Hori da Ukrainian bizitzearen alde txarra. Egia da!! Ez naiz aurkeztu ere egin. Kateryna dut izena, eta gure familian 7 pertsona gara: ama, aita, ni, eta nire 4 nebarrebak. Ukrainarra naiz.

Gaur eskolan nengoela, sirena entzun dugu. Gure sirenek ez dute pelikula amerikarretan entzuten direnekin zerikusirik, gure sirenek ez dute klaseko orduen bukaera edo hasiera adierazten. Ez, gure sirenek Errusiarren armadaren eraso berri baten berri ematen dute, eta momentu horietan, denok izutu eta urduritu egiten gara.

Gaur matematikako klasean entzun dugu abixu beldurgarri hori, eta nik korrika alde egin behar izan dut nire anaia txikienean bila, Mark eta Mykola. 2 urteko gelan oso pertsona gutxi daude, 10 bat ume inguru. Aurreko urtean 25 ume ziren, baina horietako asko lur azpian daude gerra honen ondorioz. Anaiak hartu ondoren, nire ahizparen ikasgelara joan naiz. 15 ume dira bere gelan, eta horietako bat bere lagun mina, Zlata. Zlatak ere bere familiakoak lagundu behar ditu bunkerrera joaten; beraz, ahizpa Zlata laguntzera joan da nik kontrakoa esan badiot ere. Baina ezin dut denborarik galdu, hortaz, Mark eta Mykolarekin joan naiz bunkerrera ziztu bizian.

Bunkerrean nire familiarekin elkartzean, ahizpa eta Zlataren familia ez direla iritsi ikusi dut. Amak egundoko errieta egin dit, eta une horretan entzun dugu lehenengo bonba. Bunker osoa dardarka hasi da, eta konturatu naiz ez dudala nire ahizpa berriro ikusiko.

2023 otsailak 27 astelehena

Duela bi aste Errusiarrek nire ahizpa hil zuten. Egun hauetan nire amak ez du ia hitzik egin, eta nik ezin izaten dut begirik itxi. Beti esna egoten naiz sirenaren bat entzungo dudan beldurrez, eta lokartzen naizen tarte motzetan amets gaiztoak etortzen zaizkit burura: nire ahizpa odoletan, bonbak lurra jo zuen momentua, eztanda... Eta betiko galdera: zer gertatuko zen ahizpa nirekin etorri izan balitz? Ez banio Zlatarekin joaten utzi? Bizirik egongo zen? Seguruenik bai, eta nahiz eta aitak Errusiar armadaren errua dela esan, nik uste dut nire errua ere badela.



**EIDER
OTXOTORENA
VENTOSO**

DBH, 2. MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

Gaur ukrainar armadaren buruzagia etorri da gure herrira, Járkivra. Eta herriko gizon guztiak eraman ditu gure armadarekin entrenatzera, nire aita barne. Aitak esan digu denbora gutxirako joango dela, baina amak agurtu duen moduagatik uste dut gezurra esan digula, eta esan diguna baino denbora gehiago pasako duela etxetik kanpo.

2023 martxoak 30 osteguna

Aitak hilabete baino gehiago darama kanpoan, eta militarrek ez digute hari buruzko berririk eman. Etxeko giroa geroz eta astunagoa da, ahizpari gertatutakoaren eta aitarenaren ondorioz. Amak gutxitan jaten du, eta nik daukagun janari apurra nire anai-arrebei ematen diet.

Egunerokoan, nik eta nire anai-arrebek eskolara joan behar dugu, nire ama etxean utzita. Gaur bonbardaketarik izan ez dugun arren, errusiar soldadu batzuk etheen inguruan izan ditugu beren fusil erraldoi eta tankeekin. Zorionez, ez da zauriturik izan.

2023 maiatzak 7 igandea

Gaur ukrainar armadakoak agertu dira etxeko atean.

Gu bazkaltzen ari ginela atea jo dute, eta amaren atzetik joan naiz zer gertatzen zen ikustera. Orduan ikusi dut hilkutxa handia, gainean gure herrialdeko bandera eta militar txano bat zituela. Hori ikustean, ama lurrera erori da negar zotinka eta aieneka. Eta kutxan zer zegoen ulertu dudanean, ni ere negarrez hasi naiz. Nire ahizpak, Liliyak ez du denbora asko behar izan nire berdina ondorioztatzeko. Amak egun guztia eman du sofán botata, aitaren militar txapela esku artean duela, eta arratsaldean ez gara ikastolara joan. Bi hildako izan dira nire familian urte erdi honetan, eta errusiarren errua izan da dena.

2023 maiatzak 19 ostirala

Gaur armada buruak herri guztia batu du plazan. Bigarren aldia da hori gertatzen dela gerra hasi zenetik. Lehenengo aldiz bildu gintuztenean, gure ondoko herria guztiz suntsitu zutenean izan zen.

Kontua da, gerra hasi zenetik gudara joan ziren pertsona asko hil egin direla, militar eta erizainak barne. Ondorioz, astearterako familia bakoitzetik pertsona bat aukeratu beharko dugula esan digu. Eta pertsona hori beraiekin joango dela Ukrainiako hiriburura, bertan baitaude armadakoak.

Armadarekin joango dena ni izango naizelaren beldur naiz, nire anaiak gazteegiak direlako, eta ama joaten bada ni gelditu beharko nintzatekeelako familia zaintzen.

2023 maiatzak 23 asteartea

Azkenean nire susmoak egi bilakatu dira, hau da, ni izan naiz familiako ordezkaria.

Gaur berriz elkartu gara herriko plazan, eta armadako nagusiak familiak aukeratutako pertsona guztiak batu ondoren kamioi batean sartu gaitu. Kamioira sartzera, pertsona guztien aurpegi tristeak hobeto ikusi ahal izan ditut. Konturatu naiz ni naizela gazteena, nahiz eta badauden ni baino urte bete zaharragoak diren pertsonak. Bidaia guztian zehar bi gizonen baino ez dute hitz egin. Kievera iritsi garenean, Ukrainiako hiriburua, bertan zeuden kanpin denda batzuetan sartu gaituzte. Niri kamioiko bi gazterekin tokatu zait, hamazazpi-hemezortzi urtekoak. Nire gauzak ohe gainean utzi ondoren kanpora atera naiz, aire freskoa arnastu nahi nuen eta. Beno, fresko-freskoa ez, errautesaren ondorioz. Afaldu ondoren, Andriy eta Fedir nire logelakideekin, gure kanpin dendara joan naiz. Ezin izan dut lorik hartu, eta Andriyek ere ezin zuenez lo egin, bere ohean sartzeko gonbitea egin dit. Bere besoan artean egin dut lo.

2023 ekainak 16 ostirala

Gaur nire lehen biltzarra eduki dut. Andriyren eskutik sartu naiz karpara, eta soldaduz egindako biribil batean eseri gara. Buruzagia hiriak nola dauden esan duenean, Andriyri eskutik gogor heldu diot. Nire herri osoa suntsituta dago. Horrek esan nahi du nire familia... Andriyek nire aurpegia ikusi duenean Borisi, buruzagiari, kanpora ateratzeko baimena eskatu dio, eta liskar latz baten ondoren kanpora atera gara. Kanpoan, Andriy nire ondoan makurtu eta nire esku hotzak bereekin berotu dizkit. Zer gertatzen zitzaidan galdetu ondoren, nik dena kontatu diot. Amaitu dudanean, isilik geratu gara biok. Nik bere erantzun bat nahi nuen, baina ez dit ezer esan. Ez dit ezer azaldu. Mundu honetan existitzen den inork ez dit ezer azaltzen! Ez dakit nola ikusten nauten, ume txiki bat banintz bezala, tuntun bat banintz bezala, eta niri horrek nazkatu egiten nau. Hamahiru urte ditut, ez hiru!

Nazkatuta nago, baina Andriy da momentu honetan nire lagun bakarra, besteak jada ez daudelako mundu honetan, beraz, oraingoz ezingo ditut nire zalantzen erantzunak argitu; Zer gertatu da nire herriarekin? Eta nire familiarekin? Zergatik hasi da gerra hau? Zergatik beti ordaintzen ditugu umeek helduen edo politikarien arazoak? Eta zergatik ez dit inork ezer azaltzen? Zergatik daude gerrak munduan? Zergatik ez doaz politikari nazkagarri horiek gerrara? Zergatik daude munduan gerrak nahi dituzten pertsonak? Zergatik?

ZORIONTASUNA OINETAKORIK GABE

Iria galdera asko dituen gaztetxo bat da. Mundua hobeto ulertu nahian, etengabe mintzo zitzaien bere buruari. Askotan ez zuen erantzunik aurkitzen, baina sekula ez zuen amore ematen.

Eta halako egun batean, ikastetxera mutil berri bat iritsi zen. Ez zuen oso aberatsa zenaren itxurarik, baina hari begiratzean, beti ikusten zitzaien irribarre bat, eguzki izpi baten modukoa, aurpegian marraztuta.

Egunak igaro ahala, galdera berri bat piztu zitzaien Iriari barruan. Eta beti egiten zuen bezala, amonarengana jo zuen, bere barrua argitzen laguntzen zionarengana.

Gertatutakoa kontatu zion. Agurtzeko ordua iritsi zenean, ohiko eskaera egin zion, begiak distiratsu:

- Amona, amona! Konta iezadazu ipuin bat!
- Noski - erantzun zion irribarrez- . Baina oraingoan adi-adi egon beharko duzu; zure interesekoa izango dela uste dut-eta.
- Ados!

Eta amonak, denborarik galdu gabe, ahotsa baretu eta ipuina kontatzen hasi zen:

Aspaldi-aspaldian, gaztelu handi batean, errege bat bizi zen. Triste eta aspertuta pasatzen zituen egunak. Dena zuen- altxorrak, boterea, zerbitzariak- baina, hala ere, zoriontasunak ihes egiten zion. Egunero esaldi berarekin jaikitzen zen:

- Beste egun huts bat, ezer ez egiteko...

Arratsalde arrunt batean, ordea, bere bizitzako erabakirik garrantzitsuena hartu zuen:

- Edozer egingo dut zoriontasuna lortzeko.

Hala, etsipenak bultzatuta, erreinuko jakintsuenaren atea jo zuen. Honek, lasai eta seguru, honela esan zion: zoriontsu izateko, munduko pertsonarik zoriontsuenaren zapatak lortu behar zituela. Zapatak janztean, haren zoriona bereganatuko omen zuen.



**LUR
VIANA
ORTEGA**

DBH, 2. MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
AIPAMEN BEREZIA**

Erregeak hori entzun bezain pronto, mezulariak bidali zituen herriz herri, mezu argi batekin:

Herritar maiteak,

Erresuman erabat zoriontsuena den pertsona topatu behar duzue!

Aurkitutakoan, oinetakoak eskatu behar dizkiozue eta zuen erregeari ekarri.

Saria izango duzue.

Itxaroten nauzue...

Asteak igaro ziren bilaketan. Zaila zen guztiz zoriontsua zen norbait topatzea: bati osasuna falta zitzaion, besteari maitasuna, hurrengoari bakea...

Azkenean, mendi tontor batean, etxe xume batean bizi zen nekazari bat aukeratua izan zen. Haren begiradan bizi-poza sumatzen zen une oro, zalantzarik gabe.

Mezularia gaztelura itzuli zen, eta erregeari esan zion:

-Maiestate, berri on bat dugu... eta txar bat ere bai. Berri ona da aurkitu dugula gizon zoriontsua. Hala dela ziur gaude, haren begiradak irri egiten daki.

- Eta zein da berri txarra? - galdetu zuen erregeak, ezinegonak jota.

- Ez du zapatarik.

Iria isilik geratu zen. Denbora batez ez zuen ezer esan. Gero, amona besarkatu, eta belarrira xuxurlatu zion:

- Mila esker, amona. Nolako zortea dudan...

Bihotzean zerbait mugitzen ari zitzaion, hitzek azaldu ezin zuten zerbait. Ordura arte buruan bueltaka izan zituen galdera asko beste modu batera ikusten hasi zen; agian ez ziren erantzun baten faltan zeuden galderak, baizik eta begirada egokiaren zain zeudenak.

Handik aurrera, ikastetxeko pasabideetan mutil hura ikusten zuen bakoitzean, ez zion soilik irribarreari erreparatzen. Oinetako zaharrei begiratzen zien, pauso xumeei, eta barruan zerbait baretu egiten zitzaion. Ulertzen hasi zen zorientasuna ez zela beti gauza handietan ezkututzen, ezta guztia edukitzean ere, baizik eta norbera zenarekin adiskidetzen ikasteaz.

Eta ordutik aurrera, galderak egiten jarraitu zuen, jakinda batzuetan, zorientasuna oinetakorik gabe ere iristen dela.

ESKERRIK ASKO, ZURI

Eskerrik asko, zuri,
ni besarkatzeagatik.

Eskerrik asko, zuri,
isiltasunean dena ondo joango zela xuxurlatzeagatik.

Eskerrik asko, zuri,
ni laguntzeagatik.

Eskerrik asko, zuri,
nire malkoak lehorteagatik.

Eskerrik asko, zuri,
niri milaka irribarre sorrarazteagatik.

Eskerrik asko, zuri,
inguruko garrasietatik babesteagatik.

Eskerrik asko, zuri,
behar nuenean “maite zaitut” esateagatik.

Eskerrik asko, zuri,
nire iluntasuna argitzeagatik.

Eskerrik asko, zuri,
ni onartzeagatik.

Eskerrik asko, zuri,
amildegiaren ertzean nagoenean ni eusteagatik.

Eskerrik asko, zuri,
nigatik egin duzun guztiagatik.

Eskerrik asko, zuri,
beti hor egoteagatik.



**NIKOLE
ALDAY
MURUA**

DBH, 2 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA, OLERKI
SAILEAN**

ESKERRIK ASKO, AMONA

Eskerrik asko, amona,
zuri esker ikasi dudanagatik.

Eskerrik asko, amona,
ni laguntzeko prest egoteagatik.

Eskerrik asko, amona,
naizen bezalaxe maitatzeagatik.

Eskerrik asko, amona,
ni babesteagatik.

Eskerrik asko, amona,
niri irribarreak sorrarazteagatik.

Eskerrik asko, amona,
daukazun onena emateagatik.

Eskerrik asko, amona,
zure bihotz epelenean leku egiteagatik.

Eskerrik asko, amona,
ni txikitatik zaintzeagatik.

Eskerrik asko, amona,
ni onartzeagatik.

Eskerrik asko, amona,
nirekin eskuzabala izateagatik.

Eskerrik asko, amona,
ni besarkatzeagatik.

Eskerrik asko, amona,
beti hor egoteagatik.



**NOARA
GARCÍA
MAYORAL**

DBH, 2 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
AIPAMEN BEREZIA,
OLERKI SAILEAN**

BIZIRIK

Teilatu marroien atzean eguzkia nola ezkututzen zen begiratzen zuen Suak ospitaleko lehioaren atzetik. Asperen batek ihes egin zuen bere ezpainenatik, eta irribarre eder bat zabaldu zen bere ahoan. Suak ez zuen asko behar zoriontsu izateko, bere 15 urteetan ongi ikasi baitzuen bizitzak ematen dizkigun momentu txikiak ere goxatzen.

4 urte besterik ez zituenean izan zuten berak eta bere familiak Suaren minbiziaren berri. Ulertzekoa den moduan, 4 urteko neska txiki batek ez zuen ulertzen ingurukoak negar eta negar ikusten zituenean. Suaren neba txikiak, Izadik, Sua ilerik gabe ezagutu zuen. Arruntak ziren mutilarentzat, Suaren errebisio konstanteak eta arreba makinaz inguratua ikustea. Nebarentzat ospitalea zen bigarren etxea Suarentzat lehenengoa zen bitartean. Suarengandik ahalik eta hurbilen egoteko, gurasoak eta Izadi, ospitale ondoko etxe batera bizitzera joan ziren, Suak 8 urte bete zituenean eta nebak 4.

Suak askotan galdetzen zion bere buruari: "Zergatik ni? Zergatik?" Baina pentsamendu hori burura etortzen zitzaionean, segituan aldendu eta bizirik zegoela gogoratzen zuen. Bere gaixotasunak ez zion inolaz ere geratzen zitzaion bizitza tarteak disfrutatzen eragotziko.

Azken eguzki izpiak guztiz desagertu zirenean, ohetik jaiki eta isil-isilik ospitaletik irteteko bideari ekin zion, tratamendu garratzitsuren bat edo makineta konektatua ez zegoen beste egun guztietan egiten zuen bezala. Gelatik atera baino lehen, Libe gelakidea begiratu zuen, arnasa sakon hartzen zuen eta begiak itxiak zituen, aingeru bat zirudien. Suak irribarre xamur batez begiratu zuen. Eskailerak tentuz jaitsi zituen, medikuak ez zeuden tarteak aprobetxatuz. Berez ordu horietarako atsedean hartzen egon beharko luke, baina hori zen egunean nebak eta berak elkarrekin eta bakarrik egoteko zuten une bakarra.

Urgentzia larriren bat omen zegoen egun hartan ospitalean, horregatik mediku guztiak hara eta hona zebiltzan bueltaka, urduri, gauzak bila eta geletara sartu eta irteteari utzi gabe. Ospitalean nabaritzen zen urduritasuna ongi etorri zitzaion Suari, inor ez baitzegoen momentu hartan ospitaletik alde egiten ari zen nerabe bati arretea eskaintzeko moduan. Sarrerako idazkariak paper batzuk begiratzen zituen momentua aprobetxatu eta... lasta! Kanpora ateratzea lortu zuen Suak.

Ospitalea inguratzen zuten zelaietako batera joan zen. Sua ikusi zuenean, neba, korrika joan zitzaion besarkada estu bat ematera.

-Faltan bota zaitut -esan zion Izadik arrebari.



**IRATI
GONZALEZ
MARAÑON**

DBH, 3 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

-Atzo ikusi genuen elkar -erantzun zion goxotasunez Suak. -Kontaidazu nola joan den eguna.

Eta bertan egon ziren, ilargi betearen argipean, hitz eta pitz, elkarrekin zeuden aldiro bezala. Eguneko gertaerak kontatu zizkioten bata besteari, eguneko tristurak eta pozak, beldurrak eta haserreak... Elkarrekin zeudenean orduak minutuak balira bezela igarotzen zitzaizkien baina afaltzeko ordua iritsi zen eta elkar agurtu behar izan zuten gauero bezala. Izadi, berriro etxeko logelara sartu zen etxearen paretean zegoen zuhaitz baten laguntzaz. Suak ere ospitalera buelta egin zuen.

...

Asteazkena zen, bisita eguna. Astero joaten ziren lagunak Sua ikustera. Bertan egoten ziren, asteko gertaerak bata besteari aurrez aurre kontatuz. Kartetara edo mahi jokuetara jolasten zuten, kantatzen zuten, baita asteazken horretan bezela azterketak erreparatzen zituzten. Suaren lagunak beti zeuden beraiei bisita egitea egokituko zitzaizen asteazkena noiz iritsiko zain. Txandakatu beharra zuten, Suak, eguneko gehienez bisita bakarra jaso zezakeen, eta bisita horretan bi pertsona.

-Oso ondo... Azkena. -Esan zuen Suak, oraingoan Jareri begiratzuz- Hartzaka egin.

-Bite bit bitten.

-Super ondo! Ederki dakizue, ez izan beldurrik nota bikaina aterako duzue biek azterketan, seguru nago.

Suak, bizitzan zehar, osatzeak eta berrerortzeak izan zituen. Hobeto zegoen garaietan, ikastolara joateko aprobetxatzen zuen. Hala ere, zaila egiten zitzaion lagun eta ikaskideen erritmoa mantentzea, azken finean, ikaskideak bezainbeste ez joateaz gain, tratamenduak, ospitaleko estantziak etb. zirela medio, ikastolaz kanpo ezin zuen ikasi.

-Orain, kontatu ea zer moduz joan den astea, zerbait garrantzitsua galdu dut? Kotilleo berriren bat bai?

-Egia, ahaztu zitzaidan atzo telefonoz kontatzea. Prestatu zaitez...

Suak txikitatik izan zuen lagunak egiteko gaitasun berezi bat. Bere lagunak, txikitan ikastolan egin zituenak ziren. Azken finean, minbiziak ez zion ikastola eta ospitalea ez ziren beste lekuetan lagunak egitea baimentzen. Argi zegoen ordea, txikitan egindako lagunak izan arren, 15 urterekin oraindik ere harreman polita eta berezia mantentzen zutela. Lagunek bazekiten, Sua beren bizitzetan ez zela betirako egongo, eta horretan asko pentsatu gabe, Suari ospitalean libre ematen zioten aldi bakoitza topera aprobetxatzen zuten, plan politak eginez. Mendira joaten ziren, ondoko herriak bisitatzera, bolera, eta dirua aurrezten joaten ziren nohizbeinka plan ezohikoagoren bat egiteko, atrakzio parke batera joatea adibidez. Suari lagunak edozertarako hor zeudela jakiteak lasaitasun eta poz izugarria sortzen zioten, oso neska zorteduna sentitzen zen.

-Benetan? Ez nuen inondik inora...

Erizaina sartu zen orduan gelara, Sua agurtzeko momentua iritsi zitzaizen lagunei.

-Egongo gera telefonoz -esan zien Suak lagunei muxu banaz agurtu bitartean.

-Sua, beste norbait duzu esperoan. -Esan zion erizainak neskari sueroa aldatzen zion bitartean.

-Nor? -Galdetu zion Suak jakinminez. Iada eguneko bisita izana zuen, eta familia gauean etorriko zen, medikuak oso zorrotzak ziren bisiten kontuekin.

-Kaixo -Esan zuen oso ezaguna egiten zitzaion ahots batek.

-John! -Esan zuen pozarren Suak.

John, 80 urteko agure bat zen, eta familiakoa izan ez arren, oso harreman berezia mantentzen zuten biek. John eta Sua, neskak 10 urte zituenean ezagutu ziren. Suari, ospitalean pare bat astez alta eman zioten batean, ikastolatik etxera bueltan zihoala, jendez gainezka zegoen kale baten bukaeran, gizon zahar bat urduri eta agobiatua ikusi zuen. Gizonak, poltxa piloa eta makulua zeramatzan, guztiari nola eutsi ez zekiela aurkitzen zen. Neska segituan joan zitzaion laguntza eskeintzera.

Egun hartan, Suak, jendea zergatik zen horrelakoa galdetzen zion bere buruari. Ez zuen ulertzen, agure bat horrela ikusita, jendeak nola jarraitzen zuen aurrera ezer gertatuko ez balitz bezala. Hala ere eskertuta zegoen bera joan izanaz John laguntzera. Azken finean, beste norbaitek lagundu izan balio, ez zuten elkar ezagutuko.

-Pozten naiz zu ikustez polita, zer moduz aurkitzen zara? -Galdetu zion Johnek.

...

Suak iada 19 urte zituen. Medikoez notizi txarra eman zioten neskari, iada ezin zuten ezer egin bizitzaz lutzatzeko, minbizia zuten globuloak asko handitu ziren eta bere egunen bukaera laster zuen. Hala ere, 4 urte zituela medikoez diagnostikoa egin ziotenean, uste zutena baino askoz gehiago bizi izan zen ordurarte.

Gauero bezala, Suak eguzkia nola ezkututzen zen begiratu zuen. Momentu horretan, nebaren gelan aurkitzen zen, Suaren azken egunak zirela jakinda, medikuek ospitaletik kanpo pasatzea baimendu baitzioten. Neba ondoan zuen eta eskutik helduta zeuden.

-Badakizu zer? -Xuxurlatu zion Suak Izadiri, ez zen ia ezer egiteko indarrarekin aurkitzen.

-Esaidazu.

-Askok esango dute pena izugarria dela hain gazte hiltzea -isiltasuna- ez dudala ia ezer bizitzeko aukerarik izan. Baina badakizu zer? Super pozik nago izan dudana bizitzagatik. Asko eskertzen dut bizi dudana une bakoitza eta zorteduna sentitzen naiz inguratu nauzuten pertsona guztiekin partekatu izanaz. Ez nuke ezer aldatuko. Perfektua izan da. Badaude pertsona asko ia mende bat bizi arren ez dutenak benetan bizitzaren esanahia ulertzen, ez dituztenak honek ematen dizkigun aukerak eta uneak aprobetxatzen. Eta argi daukat, mila aldiz nahiago dudala 19 urterekin hil eta bizitza hain polit bat bizi izana, 100 urte bizi eta gutxi disfrutatu izana baino. -Isiltasuna- Egia esan kaka bat da gaixotasun baten mehatsupean bizitzea, baina gaixotasunak bizitzaz disfrutatzen erakutsi dit, eta egia esan oso eskertua nago, bestela agian ez nuke izan ditudan 19 urte zoragarri hauek bizi izango

-Izadiri iada malkoak bata bestearen atzetik erortzen zitzaizkion.

-Zer egingo dut zu gabe, Sua? -Galdetu zion arrebari negar zotinka- Nor egongo da hor gauero niri istorio bat kontatu edo kantu bat kantatzeko? Nork entzungo ditu nire txorrada guztiak eta hurrengo egunean gogoratu? Nor egongo da hor laguntza behar dudanean? Nork zainduko nau zuk zaintzen nauzun bezainbeste? Sua, ezingo dut zu gabe aurrera jarraitu... -Suari ere malko batzuk ihes egin zioten.

-Ei, lasai, ni beti egongo naiz zurekin, zure bihotzean, eta beti zainduko zaitut, zerutik bada ere. Beti izango dituzu gure oroitzenak eta argazkiak. -isiltasuna- Baina gauza bat zin egin behar didazu, bizitza goxatuko duzula, ahal duzun guztia, esan dizudan bezela, momentu bakoitza eskertuko duzula eta zaharra zarenean atzera begiratu eta izan duzun bizitza inoiz ere aldatuko ez zenukeela argi izango duzula. Mesedez, zin egin iezadazu. Nik zu zoriontsu izatea nahi dut.

-Zin egiten dizut Sua.

-Gogoratu, betidanik betirako elkarrekin.

-Asko maite zaitut, ez dakizu zenbat.

-Nik zu ere izadi.

Hau esanda, Suak masailean muxu bat eman zion Izadiri, eta burua mutilaren sorbaldan ezarri zuen. Honekin batera Suak bere azken arnasa oparitu zion nebari.

...

Zuhaitzaren inguruan pertsona piloak elkartu gara. Familiaz gain, Suaren lagun guztiak bertan daude. Guztiak isilik eta guztiak negarrari ezin eutsi. Tronboi baten melodia entzuten hasi da, Suaren instrumentu gustukoena. Horrekin batera, gurasoak lurpeko zuloa estaltzen hasi dira. Malko eta malko artean, arnasa hartu eta ahalik eta hoberen egunak prestatzen daramadana irakurtzen hasi naiz.

-Sua, mundura 4 kilorekin eta 49 zentimetrokin etorri zen. Berezia zen. Besteongandik desberdintzen zuena, behin zure bizitzan sartuta arrastro handi bat uzten duen pertsona zela da. Hemen denek dakigu, Sua pertsona zoragarria zela, lagun ona, bihotz izugarri handikoa, eta beti hor zegoen edozertarako, bai bere egun onetan eta baita txarretan ere. Beti irribarre batekin ahoan eta edozerri konponbidea aurkitzeko prest. Beti geratzen zen esaten zenuenaren detaile txikienarekin ere, benetan entzuten zizun pertsona bat zen. Orain, hutsune erraldoi bat utzi digu eta guztiek dakigu inoiz inork ez duela betekiko. Pentsatzen hasten naiz eta nola biziko gara bera gabe? Baina Suak, utzi zizkigun ikaskuntza guztietatik, batekin geratu behar gara: bizitzak ematen dizkigun une guztiekin goxatu behar dugu. Izugarria zen berak disfrutatzen zuen ahalmena, eta hori da berak gudan ikusi nahiko lukeena. Bere azken momentutan esan zidan bezela, zaharra izatean atzera begiratu eta izan dugun bizitzarekin pozik egon behar dugu, benetan aprobetxatu dugula ikusi. Sua, ezin dizugu zin egin ondo egongo garenik, ez uneoro faltan botako ez zaitugunik, ez negar egingo ez dugunik zutan pensatzen dugun bakoitzeko, baina zin egin diezazukegu, zuk nahi bezela, bizitzaz disfrutatzen saiatuko garela, guregatik noski, baina batez ere zuregatik. Asko maite zaitugu.

BIHOTZA

Nire barruan ditut bi hotsa,
isildu egiten ez diren ahotsak.
Buru barruan isiltasunik gabeko sentimendu hutsa
bularraren barnean dut mehatsa.

Gelditu egingo ez den ekintza,
betirako izango dudan baldintza.
Amaituko ez den maitasun hizkuntza,
gorputz osoan betidanik sentitzen dudan dantza.

Ez da bakarrik ezagun,
hau da txikitako lagun.
Mugimenduan gau eta ilun,
honekin sentitzen dut maitasun.

Odola jaurtitzen duen iturri,
ez hain txiki bezain inurri.
Egunero dago egarri,
gelditu gabe beti dago pozgarri.

Denek sentitzen dugu,
munduko pertsona guztiok daukagu.
Norberarena inoiz ikutu ez dugu,
baina honengatik dakigu maitatu.

Hau da gure gorputzeko argia,
egunero esango diguna egia.
Batzuena puskatuegia,
eta denek dugu barruan memoria.

Momentu batean iritsiko da gelditzeko ordua,
egongo da konektatua burua.
Bertan beti dugu helburua,
itzaltzen ez den sua.

Gehiago sentitu beharrekoa,
hau baita beti-betikoa.
Nahiko gauza zoroa,
horrelakoa da nire bihotz goxoa.



**UDANE
MARTIN
RESANO**

DBH, 3 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA, OLERKI
SAILEAN**

UBELDURAK MARRAZTEN ZITUEN MUTILA


Inork ez zekien nire izena. Edo agian bazekiten, baina ahaztea errazagoa zen. Eskolan ez zen inoiz entzuten. “Mutil isila” nintzen, “arraroa”, “beti bakarrik dagoena”. Nire izena hauts bihurtu zen ahoetan, ez zen erabiltzen, ez zen beharrezkoa. Batzuetan entzuten nuen nola ahoskatzen zuten, barre artean, baina ez zen nire izena, baizik eta irain bihurtutako zer bait. Une horietan sabelean zer bait uzkuartzen zitzaidan, bihotza txikiago egiten zen, eta burua makurtzen nuen. Lurrera begiratzen nuen eta nire oinetako zaharrak desagertzen saiatzen nintzen barrutik. Nire gorputza han zegoen baina nire burua beste nonbait neraman, minetik urruntzeko, babesteko.

Askotan pentsatzen nuen hobe litzatekeela benetan desagertzea. Ez dramatikoki, ez oihuka. Isilean. Inork ohartu gabe. Kalean paseatzen diren itzal horietako bat izatea bezala, inork agurtzen ez duena, inork faltan botatzen ez duena, inork galdetzen ez duena non egon den edo zergatik dagoen hor. Itzal batek ez du minik sentitzen. Itzal batek ez du lotsarik. Itzal bat ez dute iraintzen.

Goizero eskolara joatea mendira igotzea bezala zen, baina ez tontor argitsu batera, baizik eta zulo ilun batera. Sabel barruan harri handi bat eramaten nuen beti. Ez zen gosearena, ez zen beldurrarena bakarrik. Itxaropenik ezarena zen. Atea irekitzen nuenean banekien zer aurkituko nuen, baina hala ere ireki behar nuen. Horixe zen nire egunerokoa. Ate ondoan itxaroten zuten, betikoek. Ez nituen beraien izenak ezagutzen, baina aurpegiak buruan grabatuta nituen. Gauero amets txarretan agertzen zitzaizkidan aurpegi berdinak. Haien begiek beldurra ematen zuten, eta barreek labanak ziruditen, barrura sartzen zirenak, isilik odola ateratzen zidatenak.

- Begira nolakoa den - esaten zuten.
- Ez al zara nekatzen existitzeaz?
- Zergatik etortzen zara eskolara, inork ez zaitu hemen nahi.
- Zure ama lotsatuta egongo da zutaz.
- Inork ez zaitu maite.

Naturaltasunez esaten zuten, eguraldiari buruz hitz egingo balute bezala. Haientzat ez zen krudela, jolasa zen, denbora pasatzeko modu bat. Niretzat, ordea, egun osoan geratzen zen zauria zen, etxera iritsi arte eramaten nuen min isila. Nik burua makurtzen nuen,



**UXIA
TURCO
INTXAUSTI**

DBH, 4 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

oinetakoei begira geratzen nintzen eta lurreko pitzadurak zenbatzen hasten nintzen. Bat, bi, hiru... Batzuetan pentsatzen nuen pitzadura horiek nire antzekoak zirela, denborarekin handitzen direnak. Bultzaka hasten ziren, motxila lurrera botatzen zidaten, liburuak sakabanatzen zituzten eta zapatekin zapaltzen zituzten nire koadernoak. Barre egiten zuten. Nik ere barre egiten nuen. Bai, barre. Negar egin beharrean. Barre egiten nuen ez nintzela ohartzen pentsa zezaten, barre egiten nuen bihotza puskatu zitzaidalako, barre egiten nuen, negarrez ikusi ez nazaten.

“Barre egiten dut, negarrez ikusi ez nazaten.”

Esaldi hori bihurtu zen nire armadura. Pentsatzen nuen barre egiten banuen inork ez ninduela apurtuko. Baina barruan jada puskatuta nengoen. Barre bakoitza zulo berri bat zen barruan. Barre bakoitza gezur txiki bat.

Arropa luzeak erabiltzen nituen beti, uda izan arren. Beste guztiek kamiseta motzak jartzen zituzten, ni jertsearekin egon ohi nintzen. Ez hotzagatik, lotsagatik baizik. Ubeldurak ezkutatzeko. Moreak, horiak, batzuetan berdeak. Koloreak, baina inork ikusi nahi ez dituenak. Nire gorputza mapa bat zen, baina inork ez zuen irakurri nahi. Gaua iristen zenean ispiluaren aurrean jartzen nintzen, manga pixka bat altxatu, eta begiratzen nituen. Batzuetan kontatzen nituen. Beste bat. Beste bat gehiago. Pentsatzen nuen ea noiz bukatuko ziren. Baina ez ziren bukatzen. Batzuk desagertzen ziren, baina beste batzuk agertzen ziren haien orde. Beti zegoen berriren bat, beti zegoen mina berritzeko moduren bat. Batzuetan hatzarekin ukitzen nituen, ea benetakoak ziren ikusteko. Bai, benetakoak ziren. Ni bezain benetakoak.

Batzuetan pentsatzen nuen ea normala ote zen horrela bizitzea. Ea besteek ere horrela sentitzen ote zuten. Baina gero begiratzen nien patioan, barrezka, elkarri besarkatzen, korrika, jolasean, eta konturatzen nintzen ezetz, ni bakarrik nintzela horrelakoa. Bakardade hori zen minik handiena. Kolpeak pasatzen ziren, baina bakardadea ez. Kolpeak ahaztu egiten ziren, baina bakardadeak arrastoa uzten zuen barruan, zauri ikusezina.

Plastikako klasea zen nire babeslekua. Han, ordu batez, inork ez zidan kolperik ematen. Han, arnasa hartu ahal nuen. Irakasleak koloreak banatzen zituen eta ni beti azkena izaten nintzen, baina ez zitzaidan axola. Koaderno irekitzen nuen eta marrazten hasten nintzen. Loreak marrazten nituen. Handiak, ederrak, koloretsuak. Batzuetan eguzkiak marrazten nituen, baina barruan beti lainoak zeuden. Eguzki horiek nahi nituen niretzat, baina paperean bakarrik ausartzen nintzen marraztera. Batzuetan etxe handi bat marrazten nuen, leiho handiekin, barruan norbait irribarrez. Baina etxe hori ez zen nire etxea. Hori ere paperean bakarrik existitzen zen.

Irakaslea hurbiltzen zitzaidan eta oso politak zirela esaten zidan, artista bat nintzela. Beste ikasle batzuek begiratzen zuten, baina inork ez zuen galdetzen zergatik egiten nituen beti lore berdinak. Nik burua makurtzen nuen, ez nion begiratzen, ez nuen eskerrik ematen. Ez zekien. Inork ez zekien.

Loreak ez ziren loreak. Petaloak ubeldurak ziren, kolpe bakoitza petalo bat. Morea, beltza, horia. Kolore bakoitzak egun bat zuen. Kolore bakoitzak izenik gabeko mina. Zurtoinak orbainak ziren, egun zaharren arrastoak, azala hautsita. Baina hori guztia paperean bakarrik. Nire sekretua zen.

“Marrazten badituz, gutxiago mintzen naute.”

“Paperean uzten badituz, ez dira nireak bakarrik.”

Hori esaten nion neure buruari. Hori zen nire sendagaia. Paperean uzten nituen, han geratzen ziren, ez nire gorputzean, ez nire bihotzean. Marrazkietan ausarta nintzen. Marrazkietan oihukatu ahal nuen. Bizitzan, berriz, isilik nengoen, hitzak barruan itoak bezala.

Etxean, gauzak ez ziren errazak. Ama beti nekaturik zegoen. Lana, etxea, nire anaia txikia, guztiak gainezka egiten zion. Batzuetan begiak gorri zituen, ez nekien negar egin zuelako

ala lo gutxi egin zuelako zen. Aita ez zegoen. Aspaldi joan zen. Inork ez zuen hitz egiten horri buruz, baina etxean hutsune handia zegoen, inork aipatzen ez zuen hutsunea. Nik sentitzen nuen. Hutsune horrek ere min egiten zuen.

Afarian, telebista piztuta egoten zen beti. Isiltasuna estaltzeko bezala. Ama albisteei begira, ni platerari begira. “Dena ondo?” galdetzen zidan gauero, ohituraz. “Bai, ama”, erantzuten nuen beti. “Bai” esaten nuen, nahiz eta barruan dena apurtuta egon.

“Bai” esaten dut, egia esateko beldurra nuelako.

“Bai” esaten dut, negar egingo dudalako bestela.

“Bai” esaten dut, ez naizelako ausartzen laguntza eskatzera.

“Bai” esaten dut, ez dudalako jakiten nola azaldu barruan daukadana.

Nire anaiak barre egiten zuen, marrazki bizidunak ikusten. Batzuetan begiratzen nion eta pentsatzen nuen ea noiz arte izango zen zoriontsu. Ea noiz apurtuko zioten berari ere barrua. Ea ni bezalakoa bihurtuko zen. Horrek gehiago min ematen zidan.

Logelan sartzen nintzen, atea ixten nuen eta isilik geratzen nintzen. Pareta zuriak begiratzen nituen. Batzuetan negar egiten nuen, baina ahotsik gabe. Negarra ere ezkutatu behar nuen. Burukoan sartzen nuen aurpegia, inork entzun ez zezan. Batzuetan pentsatzen nuen ea norbaitek faltan botako ninduen egunen batean. Baina ez nuen erantzunik aurkitzen. Nire izena inork ez bazuen erabiltzen, nola botako ninduten faltan?

Gauetan pentsamenduak etortzen zitzaizkidan. Ilunak, astunak. Batzuetan pentsatzen nuen ea merezi zuen horrela jarraitzea. Ez nuen planik egiten. Ez nuen ezer prestatzen. Baina buruan galdera agertzen zitzaidan: “Eta desagertuko banintz?” Ez oihuka, ez dramatikoki. Isilean. Zer gertatuko litzateke? Nor ohartuko litzateke? Zenbat denbora beharko lukete nire izena berriro esateko?

Horrek beldurra ematen zidan. Baina aldi berean... lasaitasuna. Nekatuta nengoen borrokatzeaz. Nekatuta esnatzeaz. Nekatuta barre faltsuekin. Baina gero nire ama etortzen zitzaidan burura, bere begi nekatu horiekin. Nire anaia, telebistari barre egiten. Eta errua sentitzen nuen. Errua pentsatzeagatik. Errua nekatuta egoteagatik. Errua existitzeagatik.

Egunak berdinak ziren: kolpeak, barreak, isiltasuna. Asteko egunak nahasten zitzaizkidan. Astelehenak eta ostiralak berdinak ziren niretzat. Denak minaren kolore berekoak. Baina egun batean zerbait okertu zen. Plastikako klasea iritsi zen, koaderno ireki nuen eta ez nuen ezer marraztu. Ez nuen indarririk, ez nuen kolorerik, ez nuen ezer barruan. Orri zuria nuen aurrean, nire barrua bezala. Denbora luzez begiratu nion. Orri zuriari beldurra nion. Han ez zegoen ezer ezkutatzeko modurik.

Irakaslea hurbildu zen eta galdetu zidan zer gertatzen zitzaidan. Normalean asko marrazten nuela esan zidan. Nik sorbaldak jaso nituen. Irribarre batez esan zidan agian hobeto nengoela.

Ez. Ez nengoen hobeto, nekatuta nengoen bizitzeaz, nekatuta nengoen isiltzeaz, nekatuta nengoen ikusezina izateaz, marrazteko indarrik ere ez nuen, eta hori zen okerreana.

Hurrengo egunean ez nintzen eskolara joan. Ama lanera joan zen eta ni ohean geratu nintzen. Eta hurrengoan ere ez. Ezta hurrengoan ere. Ohean etzanda geratzen nintzen, sabaiari begira, pentsamenduak bezala, zuri. Ama kezkatzen hasi zen, atea jotzen zidan, galdetzen zidan ea gaixorik nengoen. Nik ez nion ezer esaten. Ez nuen hitzik aurkitzen. Batzuetan pentsatzen nuen ea norbait ohartuko zen faltan nengoela. Baina nire baitan, banekien inork ez zuela bilatuko.

Eskolan, irakasleak nire koaderno zaharra aurkitu zuen apal batean, hautsez bete. Plastikako materialaren ondoan zegoen, ahaztuta. Ireki zuen. Hostoz hosto pasatzen hasi zen. Lehenengo lore politak ikusi zituen. Irribarre egin zuen. Baina gero gelditu egin zen. Begiak estutu zituen, hurbildu eta hobeto begiratu. Orduan konturatu zen ez zirela loreak. Ubeldurak ziren. Kolpeak. Mina. Nire mina.

Irakaslearen eskuak dardarka hasi ziren. Arnasa estutu zitzaion.

- Nola ez dut ikusi...

- Zergatik ez nuen gehiago galdetu...

Orriak pasatzen jarraitu zuen. Bat. Beste bat. Beste bat. Denak berdinak. Denak minarekin. Kolore bakoitza oihu bat zen. Baina inork ez zuen entzun.

Orduan negar egiten hasi zen. Negar isila. Negar erruduna. Koaderno bularrean estutu zuen, norbait besarkatuko balu bezala. Baina ni ez nengoen han. Beranduegi zen.

Lasterka joan zen nire gelara. Atea zabaldu zuen. Nire aulkia hutsik. Motxila ez zegoen. Isiltasuna handia, astuna. Oihuka bezala. Ikasle batzuk begiratzen hasi ziren, baina inork ez zuen ezer esan. Irakaslea nire tokian eseri zen. Aurpegia eskuen artean estali zuen.

- Barkatu...

- Barkatu...

Negar egin zuen, negar benetakoa. Beranduegi.

Etxean ama negarrez zegoen. Ni logelan, leihoari begira. Kanpoan ume batzuk jolasten ari ziren. Haien barreak entzuten nituen. Baina niretzat beste planeta batekoak ziren. Ez nuen ihes egin, ezz nuen salto egin, baina barruan zerbait hil zen.

Haurrak izan behar nituen, baina zaharra sentitzen nintzen. Nekatuta. Hutsik.

“Nire gorputza hemen dago,

baina ni jada ez.”

Ez dakit zer gertatuko den bihar. Ez dakit berriro marraztuko dudan. Ez dakit berriro hitz egingo dudan. Ez dakit berriro barre egingo dudan. Baina badakit zerbait: nire loreek azkenean norbaiti min egin ziotela. Ez kolpeengatik. Baizik eta egia zelako.

Inork ez ninduen ikusi apurtzen, inork ez ninduen entzun barrutik hiltzen ari nintzenean. Orain isilik nago betiko, eta orain bai... denek begiratzen dute. Baina begirada hauek berandu iritsi dira. Nire mina ez da gehiago nirea, orain errua da.

Agian beranduegi. Baina egia.

MINAREN AINTZIRA

Minaren aintzira ez da mapetan agertzen,
baina badaki nola iritsi guregana.

Malkoz elikatzen da,
isilean,
egunetik egunera.

Ez da bat-batean betetzen,
tanta bakoitzak bere pisua du;
beldurrarenak, agur esan gabe joan direnenak...

Urrutitik entzuten da uraren mugimendua,
baina ez diogu kasu egiten,
ez diogu kasu egiten bertan oinak busti arte.

Aintziraren erdian irudi bat dabil dantzan,
denentzat bera,
baina guztiz desberdina.
Nork bere mina ikusten du han,
bere izena,
bere hutsunea.

Begirada bat nahikoa izan daiteke uraren azala apurtzeko.
Barruan gordeta zegoen guztia astintzeko.

Askotan pentsatzen dugu urrun dagoela,
beste batzuen istorioetan,
baina tximista bat bezala
ziztu bizian doa zuregana.

Ez du baimenik eskatzen,
ez du zure atea jotzen.
Bat-batean hor dago,
zure baitan.

Minaren aintzira ez da lehortzen,
ez du ihesbiderik,
zuri begiratzen dabil,
hurbiltzeko momentu perfektuaren zain.

Minaren aintzira beti egongo da hor,
eta bertan igeri egiten ikasi behar dugu.



**NORA
ARZALLUS
FAYA**

DBH, 4 MAILA

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA, OLERKI
SAILEAN**

GIZARTEA GURI DEIKA ARI DA

Arratsaldero bezala, Pariseko argian murgilduta nengoen, etxerako bidean. Nire ondoan, Sena ibaiak berba egiten zidan urez egindako hitz goxoen bitartez, esanez bezala: “hurbildu, hurbildu gehiago, gerturatu nigana”. Ahots hura benetakoa balitz bezala, ibaira hurreratu nintzen. Han, uraren ertzean, emakume bat ikusi nuen, Senari begira, urak hari ere hitz egingo balio bezala. Halako batean, ikusi egin ninduen, eta niregana hurbildu zen.

- Arratsalde on, gazte. Ni poeta naiz, eta zure bizitza laburraren laburpen eder bat egin dezaket, hitz apainak eta harmonikoak erabiliz. Poema bakoitza bost euroan kobratzen dut. Zer deritzozu zure istorioa eguneratzen badidazu? - halaxe esan zidan andreak. Ahotik ateratzen zitzaion hitz bakoitzeko, nik buruan nuena hura bakarrik zen. Ez zen frantsesa, ez zuen azenturik. Gainera, azal kolore ilunegia zuen bertakoa izateko. Nor izango ote zen, orduan, neskato hura?

- Aizu, begira, eskertzen dizut zure eskaintza, baina Parisen zu bezalako arima asko daude, artea egiteagatik kobratu nahian dabiltzanak. Ez diot ipuin kontaketa ezetzik esango, baina, zera proposatzen dizut, zu izatea narratzailea, eta ni entzulea - erantzun nion jakin-minak jota.

- Baina, zer nahi duzu ba nik kontatzea?

- Tira, ez dakit... Ez dirudizu frantsesa, ez duzu bertako azenturik, eta, ez ezazu gaizki hartu, baina, hemengoa izateko azal kolore ilunegia duzu... Beste hitz batzuetan, argi daukat ez zarela bertakoa. Zergatik ez didazu zure istorioa kontatzen?

- Ongi da, kontatuko dizut... Baina, zera zin egin behar didazu: hemendik aurrera, egunero bisitatuko nauzula. Nahiz eta euria ari, nahiz eta eguzkiak gogor jo, arratsaldero Sena ibaia entzungo duzu, eta honek ni nagoen lekuraino gidatuko zaitu... artista bat laguntzeko, maitasunaren hirian maitasunik gabe bizi den arima bati konpainia egiteko.

- Ados, zin dagizut.

Eta horrela, emakumea bere biografia erreztatzen hasi zen, eta, ahoskatzen zuen hitz bakoitzarekin batera, nire samindura geroz eta handiagoa, geroz eta bortitzagoa zen.



**AMAIUR
VIANA REY**

DBH, 4 MAILA

**URRUZUNO
LITERATUR
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

- Duela hogeita bat urte, ezbehar handia gertatu zen munduan: lehenengo aldiz hartu nuen arnasa. Hori omen da bizirauteko baldintza nagusia, arnasa hartzea. Airean oxigenoa dago, oxigenoan, geure gorputzontzat onuragarriak diren hainbat sustantzia kimiko. Tira, orduan txikiegi nintzen nire herrialdean gertatzen ari zena ulertzeko...

“Gurasoek ospitaletik etxera eraman ninduten, kostata, bonba bat eta hurrengoaren arteko tartean ezinezkoa baita arnasa hartzea. Etxean, logelan sartu ninduten nire logelan. Ñimiñoa zen. Nire begi handi irtenekin ingurua begiratzen nuen, ezer ez zegoen tokian zerbait aurkitzea espero banu bezala, baina ezin. Izan ere, ezinezkoa da kerik ez dagoen lekuan sua topatzea.

Beno, nire lehen urteak ez dira istorioan garrantzitsuak. Esan dezakegu nire bizitza hamar urte betetzerakoan hasi zela. Orain bertan gertatzen ariko balitz bezala oroitzen dut erosketak egitera bidali nindutenekoa. Kaleetan, jendetza. Indibiduo bakoitzaren barruan, haren bizitza baldintzatzen, odola. Odol horren barruan, arriskua. Agortzeko, gutxiegi geratzeko arriskua. Kanean zegoenak ez zuen tutik esaten, egoera bortitz baten zain balego bezala. Ni, oraindik ere, txikia eta inozentea nintzen ezer ulertzeko. Hortaz, eskatutakoa erostera joan nintzen dendara, lasai, nire bizitzako marra guztiak horizontalak balira bezala.

Etixerako bueltan gertatu zen dena. Dendatik irten nintzen, erosketak eskuetan nituela, eta, bat-batean, hiru auto ezezagun ikusi nituen. Segituan, zenbait pertsona atera ziren kotxearen gainera: armak zeramatzaten, sekulako metrailetak. Jarraian, arma horiek tirokatzen hasi ziren, edonora tiroak jaurtitzen, edonora. Airera nahiz lurrera, aurrera nahiz atzera, aurpegira nahiz bihotzera. Baina, bazegoen tirokatzen ez zuten leku nazkagarri bat: haien burua.

Iskanbila hura ikusita, arrapaladan egin nuen etxerako bidea, izuaren izuz. Behin etxera helduta, gurasoei kontatu nien gertatutakoa. ‘Putza, israeldarrak berriro etorri dira!’, entzun nion aitari. Hurrengo bi hilabeteak etxean konfinatuta igaro nituen. Nire bizi-espazioarekin batera, nire bihotza ere nabarmen txikitu zen, oraindik egundoko ikara bainuen gertatutakoaren ostean.

Etixeratuta pasatako bi hilabete horiek benetan neketsuak egin zitzaizkidan. Nire neba-ahizpekin jolasteko eta jolasteaz aspertzeko denbora soberan eduki nuen, baina nire lagunekin egoteko nahiak egunero egiten zion bisita nire buruari. Gainera, aitortu beharra daukat haiengatik kezkatuta nengoela, ez baintuen aspaldian ikusi. Egunero, haiengatik egiten nuen otoitz, denak ongi egon zitezen, eta konfinamendu bortitz hura ahalik eta lasterren amai zedin.

Hala, udaberriko egun eguzkitsu batean, Allahk nire otoitzak entzun zituen: konfinamendua bukatzearekin batera, nire kezka guztiak hil egin ziren. Edo hori uste nuen nehintzat... Eguzkiarekin batera, ni ere kalera irten nintzen, berriro ere. Bi hilabete etxean konfinatuta, isolatuta, bakartuta, nire bizitzako kartzela hartan giltzapetuta eman ondoren, azkenean iritsi zen hainbestetan amestutako unea. Bi aldiz pentsatu gabe, etxetik atera eta lagunengana joan nintzen, haiek ikustera, ikutzera, sentitzera. Haiekin pasatako arratsaldea egundokoa izan zen. Baina, dena den, bazegoen oraindik nire kezka bizirik mantentzen zuen gertakari bat: Mohammed, nire lagun mina, ez zen gurekin elkartu. Are gehiago, gutako inork ez zekien zergatik ez ote zen irten, non egongo ote zen... Buruhauste batek burua hausten dizunez gero, kontu horri buelta gehiegirik ez emateko agindu nion nire buruari, baina ezin. Ni egonezin asko nituen neska nintzen. Ondorioz, kezka nire gorputzaz eta izaeraz mozarrotzen zen. Ezergatik arduratuta nengoenean, ez nintzen ni, Fatima, nire kezka baizik.

Gau hartan ezin izan nuen Mohammed burutik kendu. Ezin nuen jasan erantzunik gabeko hainbeste galdera edukitzea, airean, hegan, dantzan, nire gorputzean barrena. ‘The answer, my friend, is blowing in the wind’, dio nire kantu gustukoenak. Nire kasuan, berriz, galdera zen airean dantzan zebilena. Hala, jakin-minak nire bihotza menderatu zuen, eta goizeko bostetan, pijaman, Mohammeden etxeruntz abiatu nintzen, airean dantzan zebiltzan galdera horiek guztiak erantzunez hiltzeko asmoz.

Dena ilun-iluna zegoen, ezin nuen lurra ikusi. Sentitzen nuen gauza bakarra nire oinek ikusezina zitzaidan lur hori zapaltzen zuten bakoitzean sortzen zuten musika monotonoa zen, 4/4ko konpas batean beltzak izango balira bezala. Zorionez, ondo baino hobeki nekien Mohammeden etxerako bidea. Gauzak horrela, segituan iritsi nintzen. Bertan, argi bat nabarmentzen zen gaueko iluntasunean, opera batean soprano bat bezala. Isiltasuna hilez, zarata bat entzun nuen: aiene bat zen. Horren ondoren, ezaguna zitzaidan hots bat, metraileta bat. Azkenik, isiltasuna. Ni, beldurrak jota, geldi geratu nintzen, isilune hark miloika hitz esan zizkidan-eta. Alabaina, geldione hark ez zuen gehiegi iraun, Mohammeden etxean egonak ziren israeldarrak nire bila baitzetozen. Gertatutakoan hausnartzeko astirik gabe, segituan hasi nintzen korrika, jakinda hori zela bizirauteko aukera bakarra.

Gertakariaren egunean, oso goiz jaiki nintzen. Entzundako guztiak ez zidan amets batetik bestera salto egiten utzi, beraz, ohetik altxatzeko ordu aproposa heldu zela iruditu zitzaidanean, etxetik atera eta goiz hartan egona nintzen tokirantz abiatu nintzen. Hara iristean, ikara nire gorputzeko hezur bakoitzetik irristatu zen. Dena den, nire burua derrigortu nuen bertan sartzera. Izan ere, Mohammed nire laguna zen, eta gau hartan jazotako iskanbila zer izan zen jakiteko premia nuen. Esan eta egin, Mohammedenera sartu nintzen, ahalik eta ausardia handienarekin. Baina kemena nire lagunaren gorpua ikustearekin batera joan zitzaidan. Hantxe, egongelako sofan botata zeuden Mohammed eta bere arreba. Neskari laban bat sartu zioten bihotzean, bere maitasuna erdibitu nahi balute bezala. Mohammed, aldiz, fusilatua izan zen. Gizajoa, arrebaren ondoan erori zen, biak elkarrekin, elkarrengandik urrun. Handik irten baino lehen, ene lagunaren gorpua besarkatu nuen azken aldiz. Azkenekoz ukitu nahi izan nuen, azkenekoz sentitu. Beroa helarazi nahi izan nion, baina lortu nuen bakarra nire bihotza izoztea izan zen.

Mohammedenetik ateratzerakoan, berriro ere nire etxerantz segi nuen. Ematen nuen pauso bakoitzarekin, elkarrekin igarotako une desberdin bat oroitzen nuen. Pauso bat, oroitzapen bat. Hori zen nire melodiaren erritmo berria. Inoiz baino motelago egin nuen bidea, inoiz baino goibelago. Nire barruan, dena amesgaizto bat soilik izan zela pentsatzen nuen, ez zela erreala, oraindik ametsetan nengoela. Baina, Palestinako bonbardaketen zarata monotono ezagunak esnarazi ninduen. Bat-batean, pentsamendu batetik bestera ihes egiteko tartean, bonbaz inguratuta nengoen.

Etxean sartzetakoan, ez nuen inondik ere espero aurkitu nuena. Nire begiek behatu zutena benetan sinestezina zitzaion ene bihotzari. Denak hilda zeuden, tirokatuta. Amari kopetan sartu zioten bala, garunarekin batera, bere oroipen guztiak zulatuz. Segituan hurbildu nintzen haiengana, gogor besarkatu nituen denak, goxo, keinu horrek bizitzara itzultzea baimenduko balie bezala. Bania, halako

batean, ideia are ikaragarriago bat nire buruan pausatu zen, txori bat zuhaitz baten adarrean bezala: israeldarrek senide guztiak hil bazizkidaten, ni ere akabatzeke gura izango zuten. Honetaz ohartuta, korrika hasi nintzen. Ez nuen ondasunik hartu, ezta dirurik, ez eta jakirik. Hala, Forrest Gumpen pare, arineketan hasi nintzen, norabiderik gabe, baina Palestinan bizitako guztia ahazteko premiaz.

Horrela, bidaiak neketsu eta latz baten ondoren, Parisera heldu nintzen. Hemen bizitza errazagoa izango zitzaidala uste nuen, baina, Gobernuak ez du bere hitza bete. Ez didate ezer eman: ez etxerik, ez dirurik, ezer ez. Eman didaten gauza bakarra gosea izan da. Nire bizitzan ez dut gehiago sakonduko, baina, garrantzi handiko kontu bat esatea gustatuko litzaidake. Palestinan gertatzen ari dena onartezina da. Israeldar nazkagarri horiek gure herria akabatzen ari dira, egunero bonbak jaurtitzen, edonor tirokatzen, mundu osoaren aurrean. Telebistako albisteek gezurra besterik ez dute kontatzen. Diruarengatik egiten dute dena. Balizko su-eten hori sinatu denetik, berriek ez dute gaiari buruz ezer kontatzen. Ahaztu egiten zaie, axola zaien kontu bakarra haien soldata baita, besterik ez. Gauza bera esan dezaket politikarien inguruan. Palestinan gertatzen ari den sarraskia haien begien parean dago, baina itsuak balira bezala jokatzeko dute, ez dutelako ikusi nahi benetan zer gertatzen ari den. Are gehiago, gobernu batzuek, Trumpenak, adibidez, israeldarrei armak bidaltzen dizkie, haiek gu bezalako herritar apalak hiltzen segi dezaten. Muski, Trumpi, Netanyahu, esan nahi diegan gauza bakarra da nazkante hutsak direla, haien bizitza diruaren menpe dagoela. Baina, jendea ez da inozoa: noizbait, nonbait, inork begiak zabalduko ditu, eta ohartuko da benetan egin dutenaz. Gainontzeko herritarrak honen alde jarriko dira, eta politikarien aurka borrokatuko dute. Baina, tamalez, ordurako beranduegi izango da. Dagoeneko, miloika hildako baino gehiago egon dira Gazan. Hori nahikoa baino gehiago da. Baina, inork ezer egiten ez badu, egoerak okerrera egnigo du, hildakoak areagotuko dira... Eta, azkenean, munduan ez da palestinarrik geratuko. Hori da esateko nuen azkena”.

Fatimaren biografia gogor eta zailak oilo-ipurdia eragin zidan. Egun hartatik aurrera, arratsaldero nihoan beregana, bisitatxo umil bat egitera, ahal nuen bezala genozidioaren aurkako borrokan laguntzera. Fatimak asko eskertu zidan beregatik egindakoa, baina hori ez zen nahikoa. Hark esan zidan bezala, kontuak hala segitzen badu, munduan ez da palestinarrik geratuko. Beraz, hirurogeita hamazazpi urteren ostean, bada garaia gutako bakoitzak Nakba bezalako bidegabekeriaren aurka ukabilak altza ditzagun, eta, behin soilik bada ere, zuk eta biok egungo gobernuen eta sistemen aurka borroka dezagun, politikari guztiak faltsuak baitira, eta, nor edo nor, hiltzaileak.

AZKEN TAUPADA

Nahigabetuta eta etsituta nengoelarik
nire erraiak ezin topatu bizirik,
atsekabez eta suminez horniturik
bihotza saminez blai izanik.

Sorrarazitako une gazi-gozoa argitu nahian
barneko nahasmena bilakatu da mingots,
kresalaren usaina badian
eta protagonista zure ahots.

Nik zuri deiadar eginez
errealitatetik amilduz,
nire gotorlekua zinenez
gertatutakoaren zergatia itaunduz.

Patuak elkarren aldean jarriz ausaz
sosegua eta bakea sentituz senean,
musukatzen ninduzun heinean
denbora aitaren batean pasaz.

Etxekotasuna sentitzeko desira
nuen nik zure altzoan,
zure begien dirdirari begira
ferekatzen ninduzun azalean.

Maite zintudala helarazteko
ez nuen kemenik izan,
eta zure errautsak soinean eramateko
erruduntasuna dabilkit dantzan.

Hainbat aldarte zaurigarrik
mesfidantza nagusitu dute,
ez zegoen beldurtu beharrik
halere, barne hotsek bahitu naute.

Bizi poza iraungi zaidan arren
ez zait une bakar bat ere ahazten,
ostera, bukatuta dago guda
aitzitik, nire azken taupada hau da.



**YUE
RIVEIRA
MITXELENA**

BATXILERGOA 1

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA, OLERKI
SAILEAN**

ORROITZAPENAK

Iluntasunaren erdian esnatu zara, non zauden, nola iritsi zaren jakin gabe. Guztia dabil bueltara zure inguruan. Ez duzu ezer ikusten, baina ez duzu ikusi beharrik sentsazio hori nolakoa den jakiteko. Mareatuta zaude. Eta ez zara ezertaz gogoratzen.

Mugitzen hasten zara, altxatzen saiatzen, ea hortik ateratzeko gai zaren, eta, zure mugimenduak eraginda, argi bat piztu da zure gainean. Argi zahar bat, noizbehinka dardarka egiten duen horietakoa. Komun publiko batean zaudela ikusten duzu, bizkarra pareta zikin batean duzula. Altxatzen saiatzen zara, baina hori egitean bonbillaren argitasuna sumatzen duzu, eta paretan gertutasuna, eta komuneko usain txarra, eta zure eskua jarri duzun lekuan dagoen (zure esku azpian dagoen) txiklea. Eta, berriro ere, denak ematen ditu bueltak zure inguruan, erortzen zarela sumatzen duzun bitartean.

Hobe eserita gelditzea denbora batez.

Denbora luzea daramazu hor barruan, gertatu denari azalpen bat bilatu nahian, hobeto noiz sentituko zaren itxaroten. Hamabi aldiz irakurri dituzu komuneko atean idatzitakoak, batzuk ametz bezalakoak, besteak haserrearen ondorio, eta baita nazka ematen duten komentarioak ere. Lurreko toki garbi bakarrean eserita zaudela, zure buruari erreparatu diozu lehen aldiz, eta orduan konturatu zara odoletan ari zarela. Hatz-koskorrak gorri-gorri dituzu, lehortzen ari den odolaz zikinduta. Sudurra ere antzeko egoeran dago, eta, zure masailetan, malkoak izandakoen arrastoak daude. Hatzekin ukitu dituzu lehenik, beraien zakartasuna sentituz. Ondoren, gazitasuna nabaritu duzu mingaina pasatzean.

Berriro ere, altxatzen saiatu zara eta oraingoan bai, lortu duzu. Hala ere, paretara heldu behar izan zara ez erortzeko, eta pixkanaka mugitu. Atea ireki, eta ispilura abiatu zara, baldosa horixka zikinei erreparatu gabe. Fluoreszentearen argi itogarriak bakarrik deitzen dizu atentzioa. Horrek, eta ispiluan ikusten duzun zure islak.

Urarekin odola garbitzen hasi zara kontu handiz, buruan galdera bakarra duzula; ispiluan ikusten duzun zure irudiari egiten diozun galdera. Etengabe, baina erantzunik gabe: Zer egin dut? Ez dago erantzunik, ez dago oriotzapenik. Zer egin dut? Zer egin dut? Inork ez du erantzuten, baina zuk jakin nahi duzu, jakin behar duzu. Zer gertatu den jakin behar duzu, non zauden eta zergatik. Zer egin dut? Zer egin dut? Zer egin dut? Erantzunik ez izateak ito



**IRAIA
SALBIDE
FERREIRA**

BATXILERGOA 2

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA**

egiten zaitu. Ezin duzu arnasa hartu, eta lehenagoko goxotasuna alde batera utzita, indarrez igurtzen duzu sudurreko odola, behingoz joan dadin. Zer egin dut? Horixe bakarrik entzuten duzu.

Garbitzen amaitu eta komunetik atera zara. Ezer gertatu ez balitz bezala. Zure memoriatik ezabatutakoari beldurrik ez bazenio bezala. Egindakoari, edozer delarik ere, beldurrik ez bazenio bezala. Eta, komunetik atera bezain laster gaueko iluntasunarekin topo egin duzu, ezerezaren erdian, zure ondoan eraikin bakarra dagoela. Gasolindegi bat, argi berde batzuk argituta. Jendea kanpoan, bilduta, eta poliziaren sirena hurbiltzen. Geroz eta ozenago. Argiak geroz eta gertuago. Lehenengo urdina, ondoren gorria. Urdina eta gorria. Berriz ere urdina, eta gorria ondoren. Badator polizia, eta ez dakizu zergatik. Baina,

arrazoiren batengatik, ez duzu bildutako jendearengana hurbildu nahi. Esnatu zarenetik lehen aldiz, ez duzu jakin nahi.

Bat batean, beste zerbait ikusi duzu, lehendik ikusi ez duzuna, eta ez zaizu gustatu. Autobidearen erdian, zure kotxea, eskuineko atea odolez zikinduta.

Poliziaren kotxearen barruan, berarengatik galdetzen dizute. Eiderrengatik. Zure bizitzako pertsona garrantzitsuenetakoa. Eta bera gogoratu duzu, eta zalantzak sortu zaizkizu ea zergatik galdetzen dizuten hari buruz. Zalantzak, eta beldurra.

Eider unibertsitatean ezagutu zenuen, lehen egunean. Zure lagun Aitorrekin ikasten zuen Ikus-entzunezko Komunikazioa. Arte ederren fakultatearen kafetegian itxaron zuten zure klaseak amaitu arte, beste zenbait lagunekin batera, eta ikusi bezain laster deitu zizuten atentzioa bere ile marroiak, bere begi berdeek, eta, batez ere, bere irribarreak. Unibertsitateko lehen egunetik moldatzen zarete ondo, eta bi hilabete pasatuta elkarrekin zineten.

Asko maite duzu. Gustuko dituzu bere energia eta intentsitatea, eta baita bere goxotasuna ere. Elkarrekin joaten zarete mendira, hondartzara eta zinemara. Zure etxean ikasten duzue, eta berean mahai jokoetara jolastu. Irakurtzea gustuko du, nahiz eta zuk institututoko derrigorrezko liburuak ere ez irakurri. Zuk korrika pasatzen dituzu goizak, nahiz eta berak gorroto duen korri egitea.

Poliziak berarengatik galdetzeak urduritu egin zaitu, eta jakiteko nahia txikitu. Ez duzu jakin nahi zer gertatu den. Eta, aldi berean, jakin behar duzu. Gogoratu behar duzu, eta Eider ondo dagoela egiaztatu.

Leihotik begira jarri zara, aldatzen ari den paisaiari begira. Hainbeste ezagutzen duzun paisaiari. Eta badakizu non pasako duzun gaua. Etxe ondoan, bai, baina ez zure ohean, komisaldegian baizik, zergatia ez jakin arren.

Lorik egin ez duzunez, gau osoa izan duzu pentsatzeko, gogoratzen saiatzeko. Baina alferrikakoa izan da, nahi eta ezin ibili zara denbora guztian. Jakin nahi duen zure parte eta jakin nahi ez duena borrokan. Negar egin duzula badakizu, baina ez dakizu oso ondo zergatik. Beldurra, mina, ezinegona? Horiengatik guztiengatik egin duzu negar. Horiek guztiak sentitu dituzu barruan, eta askoz gehiago ere.

Orain, gosari nazkagarria hartu ondoren, galderak egingo dizkizute, eta agian zerbait gogoratuko duzu. Baina ez dakizu hori nahi duzun. Ez dakizu horrek zein egoeratan utziko zaituen.

- Tira, esango al didazu zer gertatu zen atzo?

Polizia bat da, emakumea, gaztea. Hogeita hamar urte inguru izango ditu, ile marroia motots batean darama eta begirada serioa oso.

- Esan dizut, ez dut ezer gogoratzen - ingurura begiratzen duzu berari ez begiratzearren- . Gustatuko litzaidake niri ere jakitea.

Baina badakizu esan duzun hori gezurra dela. Badakizu, gertatu dena gertatu dela, zuretzat kaltegarria izango dela. Badakizu ezingo duzula jasan. Eta badakizu zure amak ere ezingo duela jasan.

Ingurua behatzen duzu, polizien mahaiak, metalezkoak, beix kolorekoak, ordenagailuekin, paperekin (batzuk txukunago, besteak sakabanatuago). Pareta grisean, kortxo bat, paperez betea, baina ez pelikuletako detektibeen antzera, ikastolako kortxoaren antzera baizik.

Galdera egin dizun polizia mahai batera doa, hasperen eginez. Giltzaz itxia dagoen kaxoia ireki, paper bat atera eta zuregana dator, azkar. Papera zure aurrean jartzen du, "orain ere ez duzu gogoratzen?" galdetzen duen bitartean.

Ez.

Ezin da izan.

Ni ez naiz izan.

Ez dut ezer egin.

Nor izan da?

Zergatik egin diote hau?

Zergatik egin didate hau?

Ez. Ez. Ez.

Ez.

Zure aurrean, Eiderren argazki bat. Atzoko argazki bat. Eider, lurlean etzanda. Gasolindegia aurreko errepidean.

Hilda.

Tiro bat du buruan, begien artean. Beste bat bularrean. Eta beste bat... ez zara esatera ausartzen ere.

Ez, ez zara zu izan. Ziur zaude. Zuk Eider maite duzu (maite zenuen), eta ez zenioke inoiz horrelakorik egingo. Bere mania guztiak ezagutzen dituzu (ezagutzen zenituen), bere ohiturak, bere gustuak, eta hori dena jakinda ere munduko pertsonarik zoragarriena iruditzen zaizu (iruditzen zitzaizun). Ezinezkoa da zuk hori egin izana. Eta egin duenak merezitakoa jasoko du hemendik ateratzen zarenean, dudarik gabe.

- Azkeneko aldiz, esango didazu zer gertatu zen atzo?

Emakumea haserre dago, nabaritzen da. Baina ezin diozu ezer esan, ez duzu gogoratzen. Lurrera

begiratzten duzu, baldosa grisezko zorura.

- Ondo da, ez duzu kolaboratu nahi.

Hori esanda, poliziak besotik hartzen zaitu, indarrez, eta berriro ere lo egin duzun gelan uzten zaitu.

Bakarrik.

Orduak daramatzazu gela horren barruan, zure konpainia bakarra etengabeko pentsamenduak direla. Gauzak gogoratzen hasi zara. Momentuak. Irudiak etortzen zaizkizu burura etengabe. Eider, kotxean zure ondoan eserita. Izu aurpegiarekin begiratzten dizu, eta zuk une horretan sentitu zenuen haserrea sentitzen duzu berriro ere.

Hurrengo irudian, gasolindegia ikusten da urrunean. Eider auto barruan dago. Zu, aldiz, errepidean, bueltaka, zer egin ez dakizula. Eiderrek ikaragarritzko beldurrarekin begiratzten dizu. Eta ondoren lurrera begiratzten du segundo batez, eta zuri berriz ere. Lurrera begiratzten du errepidean bere mugikorra dagoelako, pantaila puskatuta, gurpilekin zapaldu bazenu bezala.

Ez dakizu bi oroitzapen horien ordena zein den, baina argi duzu hurrengo azkenekoa dela. Eider ikusten duzu gasolindegi aurrean, zure jertsea jantzita. Izu aurpegia du, aurrekoetan baino gehiago. Malkoak ikusten zaizkio begiradarekin erreguka egiten dizunean. Eta, orduan, tiro bat entzuten da. Eta beste bat, bularrean hau. Eta azkenekoa, begien artekoa, jadanik hilda zegoen gorpuari amorruez emandakoa.

Orduan konturatzen zara egoeraren larritasunaz. Orduan baretzen da zure haserrea. Orduan erreparatzen diozu inguruari, Eider ez den orora. Eta ihes egiten duzu. Inor iritsi baino lehen komunera sartzen zara. Eta orduan sentitzen duzu amorrua ez den guztia: beldurra, mina, ezinegona... baita dolua ere. Kolpe bat eman diozu paretari. Eta beste

hamar, hogeit hamar ondoren. Ez dakizu zenbat izan diren, baina ziur zaude ez direla gutxi izan. Gero, lurrean eseri zara, malkoak masailetik behera sentitzen zenituen bitartean. Eta, zure mina gelditu nahian, sudurrean hartu duzu kolpea oraingoan, konortea galdu arte.

Hiru oroitzapen horiek izan dituzu buruan etengabe. Bata bestearen segidan, etengabe errepikatzen. Gauza gehiago jakin nahiko zenituzke. Egin duzunaren kausa jakin nahiko zenuke. Baina, hala ere, ez jakitea hori baino askoz hobea litzateke. Behintzat, jakingo zenuke ez dela zure errua, Eider maite zenuela eta merezi zuen bezala zaindu zenuela. Pertsona ona zarela (pertsona ona zara?), maite dituzunak zaintzen dituen. Baina, orain gogoratu duzula, errudun bilakatu zara, eta zure errua onartzen dizunean errudun bilakatuko zara besteentzat. Munstro bat. Hori, gogoratu duzuna kontatzen baduzu, noski. Kontatzea kaltegarria litzateke zuretzat, eta baita zure lagun eta familiarentzat. Litekeena da zure lagunak alboratzea, zer esanik ez zure ama. Gizartetik at geldituko dira kontatzen baduzu, baina Eiderrek ez du merezi besteek zu inxentetzat hartzea. Ez egin duzuna eta gero. Ez maite zenuen arren egin diozuna eta gero.

Oraindik bizirik dagoela sentitzen duzu. Hemendik atera arte (ateratzen bazara) ez duzu asimilatuko. Ikastera zure etxera ez doanean asimilatuko duzu. Bere etxera mahai jokoetara jolastera ez zoazenean; mendira, hondartzara edo zinemara bakarrik joaten hasten zarenean; banku batean irakurtzen aurkitzen ez duzunean edota nola egin dezakezun korrika inork galdetzen ez dizunean,

orduan asimilatuko duzu. Betiko ohituretan, betiko lekuetan aurkitzen ez duzunean, orduan asimilatuko duzu.

Hori hemendik ateratzen bazara, noski.

Ez dakizu atera beharko zenukeen. Izan ere, ez zara izango besteentzat bakarrik mustro. Zuretzat ere, munstro bihurtu zara. Eiderri egin diozunagatik ordaindu beharko zenukeen, berdin du arrazoia, berdin du- .

Oroitzapen bat etorri zaizu burura. Oroitzapen berri bat, beste guztien aurretik gertatu dena, guztiaren kausa. Probokazio bat. Eiderrek probokatu zintuelako, horregatik egin zenuen. Bromekin pasatu zelako, zutaz barre egin zuelako. Bere erruz ez zinelako nahikoa gizon sentitzen. Horregatik egin zenuen, orain ulertzen duzu. Probokazioak hainbeste haserretu zintuen, non ez zinen gai zure burua kontrolatzeko. Beraz, hein batean, bere errua da, ezta?

Ez, badakizu ezetz. Badakizu hori gezurra dela, zuk beste askok baino hobeto. Amak jasan duen guztia eta gero, nola ez duzu jakingo, ba? Justifikatuko zaituen zerbaiten bila zabilta, baina bera bezalakoa zara, gustatzen ez zaizun arren. Egin duzuna zure errua da erabat. Baina ez zenuen nahita egin. Horrek erruaren zati bat kentzen dizu, ezta? Maite zenuen eta ez zenuen nahita egin. Inpultsiboa izan zinen. Beraz, ez da zure errua erabat.

Bai, bada.

Badakizu zure errua dela.

Onar ezazu behingoz, zure errua da. Bera bezalakoa zara.

Munstro bat.

Berdinak zarete.

Biak berdinak zarete.

- Aski da! - oihukatu diozu zure buruari.

Ados, onartzen duzu zure errua. Onartzen duzu ez dagoela egin duzuna justifikatuko duen ezer. Baina ez zara bera bezalakoa. Hori ez da egia, eta ez da izango inoiz. Goizeko (goizeko? atzoko? zenbat denbora pasa da?) poliziak berriro ere atea irekitzen dizu. Oraingoan, bi aulki, mahai bat eta grabagailu bat bakarrik dituen gela batera

eramán zaitu, pelikuletan agertzen den horietakoa. Argi duzu galdetegia luzea izango dela, eta zaila, baina oraindik ez dakizu zer esango duzun, berriro ere ezer gogoratuko ez bazenu bezala egingo duzun edo egia aitortuko duzun.

Gezurrik ez duzu esango, hori ziur. Eiderrek ez du merezi, eta egindakoaren ondoren merezi duen gutxieneko gauza hori da: gezurrik ez esatea, biktimarena ez egitea. Baina, hala ere, ez dakizu denek torturatzaile eta psikopata baten moduan ikus zaitzaten prest zauden.

Polizia aulki batean eseri da; zu, bestean. Lehenagoko aurpegi serio bera du. Horrek argi uzten dizu zeinen luzea izango den elkarriketa. Grabagailua martxan jartzen du. - Oraingoan esango al didazu zer gertatu zen atzo

NIK DUDAN ONENA

Nire neba txikia, zu zara nik dudan onena,
zure irribareak sortzen du nigan atsedena.
Zurekin egotea da nire gauza gogokoena,
zure alboan ikusten baitut bizitza argiena.

Egun txarrak ditugunean,
ikusten ez duzun arren,
maitatzen jarraitzen zaitudala
jakinaraztea gustatuko litzaidake hemen.

Zure besarkadek argitzen didate eguna,
zure besoetan aurkitzen baitut lasaitasuna.
Zure irakaslea naiz, eta laguna,
eta zuri irakasteak sorrarazten du ningan poztasuna.
Elkarrekin egonda beti izango dugu jasangarritasuna,
elkarrekin sortzen dugulako maitasuna.

Noizbait amore emango dudala uste baduzu,
zuregatik aurrera jarraituko dudala jakin dezakezu.
Dena emango dizudala baieztatzen dizut,
niretzako beti bakarra izango zarela, zu.

Begiratzearekin pentsatzen duzuna ikus dezaket,
eta horretan bakarra naizela erakuts diezazuket.
Guk dugun harremana erakuts diezaikegu,
baina berdina lortzea ezinezkoa zaiela dakigu.
Nahiz eta gauza hain garestia den,
neba-arreba guztiei lortzea opa diet.

Elkarrengatik guztia ematen jarraituko dugu,
horregatik gurasoei eskertzea gelditzen zaigu.
Bereiengatik gara garena,
haiei esker izan dugulako garapena.
Zuek gabe ez genuke izango zoriona,
eta horregatik eskertzen dizuegu gu garena.



**AMAIUR
AMIANO
MONREAL**

BATXILERGOA 2

**TRASTAMINTXO
LITERATURA
LEHIAKETAKO
IRABAZLEA, OLERKI
SAILEAN**

PASAIA - LEZO
LIZEOA

